

BIDAIA-GIDA

PARTE-HARTZEA

100

ESPLORAZIO,
HURBILKETA ETA
IBILBIDERAKO
ORIENTABIDEAK

PERTSONA HELBURU

ELUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BIDAIATZEKO PREST?

Eraginkortasunez gobernatzeak, besteak beste, jarrera irekia eskatzen du kudeatze-prozesu horizontalagoak ezartzeko, beste erakunde batzuekin taldean lan egiteko eta herritarrak eta gizarte-eragile garrantzitsuak erabaki publikoak hartzeko prozesuan txertatzeko.

Gure Gobernu Programan (2012-2016) **herritarrarengandik hurbil egongo den Administrazio** antz lan egiteko apustua egin dugu, herritarrak berea den zerbaite bezala har dezan eta eraginkortasun, efizientzia, gardentasun eta erantzukizun printzipioen pean jardun dezan. Horren haritik, parte-hartze handiagoko administrazioa aurrera egiteko lanean ari gara, esku artean ditugun eta kezkatzen gaituzten herri-arazoei erantzuten lagunduko duen Euskadi lortu behar baitugu. Gizarte zibilaren eta euskal erakundeen arteko konpromiso kolektiboan oinarrituriko administrazioa behar dugu.

Demokrazia parte-hartzailean aurrera egiteko eta politika biziberritzeko prozesua gidatzeko konpromiso irmoaz ekin diogu bidaiari, funtsezko bi zutabe hauetan oinarrituta: **elkarrizketa** eta **gardentasuna**. Elkarrizketa herritarrekin, ez bakarrik arazoak

aztertzeko, baita gizarte gisa ditugun erronkak ere, entzun eta konponbide partekatuak eraikiz. Gardentasuna herritarrak uneoro “zera publikoaz” informaturik egon daitezen, hau abiatzeko eta konfiantza sortzeko punturik onena dela uste baitugu. Horrekin guztiarekin, garatzen ari garen eta etorkizunean garatu nahi ditugun proiektuen legitimotasuna areagotu nahi dugu.

Sinesgarritasuna sortu nahi dugu herritarren artean eta konfiantza sortu beren eraginkortasunean; horretarako mekanismoak jarri ditugu martxan, gai eta erabaki publikoetan herritarren parte-hartzea benetan interesatzen dela erakusten dutenak.

Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria egin dugu zuekin guztiokin batera, eta bertan ildo estrategikoak zehaztu ditugu, parte-hartzearen eta politiken eremuan jarraitu behar ditugunak. *Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren lege-aurreproiektua* bidali dugu Eusko Legebiltzarrera; gainera, “*Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria*” garatzeko konpromisoa hartu dugu, besteak beste, atzera bueltarik ez

duen bidaia honetan lagunduko diguten tresnen diseinuan gauzatzen ari garena.

Horien artean dago **Parte-hartzerako Bidaia-Gida** hau, eta nahi genuen baliagarri izatea egiten has zaitezten edota dagoeneko egiten ari zaren horretan sakontzeko, zehazteko edota orientatzeko... Azken batean, zeuen ibilbidea beharrezko berme eta baliabideekin marra dezazuen, bidaia esperientzia aberasgarria izan dadin. **Zeren eta parte-hartzeaz gozatzeko, bidaiatz bezalaxe, ahalik eta ongien prestatu behar baita aurrez.**



Josu Erkoreka

**Eusko Jaurlaritzaren bozeramaile
eta Herri Administrazio eta
Justiziako sailburua**

AURKIBIDEA

BIDAIA-GIDA	6
-------------	---

PARTE-HARTZEAREN HERRIALDEA	8
-----------------------------	---

BIDAIARAKO PRESTAKETAK	12
LEGEDIA	14
TOKIAREN HISTORIA	18
GEOGRAFIA	22
BERTAKO BIZTANLEAK, KOLEKTIBOAK ETA LIDERRAK	26
TOKIAREN KULTURA	30
OSASUNA - TXERTOAK	34
TRESNAK	38
BIDAIAKO LAGUNAK	42
ARAZO LARRIAK HELMUGAN	46
ELEKTRIZITATEA - ENERGIA	50
MONETA	54
JARRERA	58
Gogoeta: ETA ORAIN ZER? BIDAIATU NAHI AL DUZUE?	62

BIDAIA	66
DISEINUA	67
DOKUMENTAZIOA	68
IPARRORRATZA	72
MAPAK	76
MOTXILA - EKIPAJEA	80
BOTIKA-KUTXA	84

BIDAIAREN OSTEAN	124
GOMENDIO-ORRIA	126
ERREKLAMAZIO-LIBURUA	128

HEDAPENA	88
ELIKADURA	90
OSTATUA	92
GARRAIOA	92
INTERESEKO LEKUAK - ARKITEKTURA	96
ARTEA ETA ARTISAUTZA (OPARIAK)	98
ORDUTEGIAK	100
KLIMATOLOGIA	102
METODOLOGIAK: METODOLOGIAK AZTERTU NAHI DITUZU ZEURE BIDAIARAKO?	104

EBALUAZIOA ETA IKASKUNTZA	106
URRATS KONTAGAILUA	108
TENTSIOMETROA	112
ARGAZKI-ALBUMA	116
BIDAIA-KAIERA	118
EBALUAZIO-EREDUA: NOLA JAKINGO DUZU ZEURE BIDAIA BIDE ONETIK DOAN ETA HELMUGARA IRITSIKO OTE ZAREN EDO EZ?	122
BIDAIAREN EGUNKARIA	130
BIDAIA-KLUBA	132
BIDAIA-FOROA	134
EXPOVACACIONES	136

BIDAIA-GIDA



Bidaiatzeko irrika piztea eta gure bidaia antolatzen laguntzeko gida baliagarria izatea. Horixe da Bidaia Gidaren helburua.

Oraindik ezagutu gabeko eskualdeak eta tokiak bisitatu eta ezagutzea erabakitzen dutenek gehien erabiltzen duten tresnetako bat dira oraindik bidaia-gidak; **dugun denbora baliatzeko modurik onenetako bat da**, tokien turismo-, kultura- eta gizarte-erakargarritasunak ezagutu ahal izateko, bai eta bizi nahi dituzun esperientziak zentzuz aukeratu ahal izateko ere.

Gida lagungarri izango zaizue ibilbide osoa antola dezazuen, eta horri esker toki, **monumentu eta interesgune askoz gehiagoz gozatu ahal izango duzue**; gidak, halaber, **gomendio operatibo batzuk ere eskainiko ditu** aurki ditzakezuen arriskuak eta ustekabeak modurik onenean aurreikusi eta kudeatu ahal izateko.

Plangintza eta bidaia-gida eskutik doaz, zer turismo-helmuga eta bide hautatu antolatzean bidaia esperientzia paregabe bihurtzeko ibilbidea sortu ahal izango baituzue.

Ez duzue ahaztu behar bidaia-gida ingurune batean orientatu eta laguntzea xedetzat duen tresna bat dela; hala bada, gehien nabarmendutako tokiak eta elementuak erakutsiko dizkizue, zuen gustuak, interesak, aukerak, bidaia-unea zein kanpoko inpaktuak edo bestelako elementuak kontuan hartuta zer-nolako bidaia egin nahi duzuen erabaki ahal izan dezazuen.

Gida honek tresna praktikoa bat izan nahi du, bere baitan **PARTE-HARTZEAREN herrialdea esplorazio eta hurbilketa bidez deskubritzen** laguntzen dizuen gogoeta-espazioa aurki dezazuen.

PARTE-HARTZEAREN herrialderako bidaia hausnartu eta planifikatzeko

alderdi eta osagaiak deskubritzera bultzatu nahi zaituztegu orriotan. **Hasteko, abiatze-egoera zein den labur-labur ikusiko dugu**, interes-faktoreak, eragileak eta agenteak aztertuta; **ondoren, bidaia behar bezala planifikatzeko funtsezko elementuetan** gidatuko zaituztegu, era horretan **esperientzia paregabea** bizi ahal izan dezazuen: esku hartu eta baliozkotzeko metodoak eta tresnak zehaztuko ditugu, bai eta inpaktua eta emaitzak ebaluatzeko sistema ere, besteak beste.

Murgil zaitezte gidan, eta balia ezazue agenda tekniko eta politikoan **PARTE-HARTZERAKO bidaia** bat edo batzuk txertatu ahal izateko, **demokrazia zein gobernantza-eredu eta -eite berrietarako** ezinbesteko elementua baita.

PARTE- HARTZEAREN HERRIALDEA

Geografikoki gobernantza-eredu berrien lurraldean kokatuta dago **PARTE-HARTZEA**; hain zuzen, funtzionamendu demokratikoa hobetzen duten aldaketa-beharren eta sarea sortzea zein herritarrei entzutea, kasu egitea eta horiekin partekatzea ahalbidetzen duten kudeaketa publikoko prozesuen artean egon ere.

7000 milioi lagun baino gehiago ditu, eta mundu osoa barne hartzen duen hedadura, baina **lurraldearen zati txiki bat baino ez dago esploratuta**. Esploraziorik ezaren ondorioz, garaiotan herritarrek ezaxola agertzen dira demokraziaren aurrean, gero eta komunikazio eta parte-hartze handiagoa eskatzen dute, informazioa trukatzeko tresnak eskatzen dituzte...

Balio publikoa sortzeko konpromiso kolektiboa dago PARTE-HARTZEAREN herrialdean.

Besteak ez bezalako lurraldea da, ikaskuntza eta hazkunde partekatua ardatz duena, eta gobernu onaren printzipioetan oinarritua.

Eskualde nagusien artean hauek nabarmendu behar ditugu:

- **Demokrazia:** herritarren parte-hartzea sustatzea berezkoa du eskualde honek, eta hori bultzatzeak herritarren eskubide bat garatzea dakar; ordezkaritza demokraziaren esparruan gobernatzeko eran zuzeneko eragina du eskubide horrek.
- **Herritarrek aktibatzea eta erronka berriak:** herritarren inplikazioa funtsezkoa da edozein jarduera arrakastatsua izan dadin; horrenbestez, oinarritzako osagaia da honelako erronkei aurre egiteko: bizikidetzaren, gizarte-kohesioaren, etorkin berrien integrazioa, ingurumena zaintzea, espazio publikoaren erabilera, baliabide publikoen arrazionalizazioa, eta abar.
- **Gizartearen aldaketa:** honen bultzadak politika publikoen diseinu eta inplementazioa hobetzea ez ezik, herrien eta hirien gizarte-kapitala sustatzeko eginkizun soziala ere betetzen du, eta, era horretan, eragileak eta harremanak eraldatzeaz gain, komunitateak beraiek zein lurralde eta gizarteak ere aldatzen ditu bide batez.

PARTE- HARTZEAREN HERRIALDEA

Bertatik bertara egindako hurbilketei esker, jakin badakigu PARTE-HARTZEAREN herrialdean hauek erruz daudela:

- **Ikaskuntza:** ikaskuntza eta garapen pertsonal eta kolektiboko prozesuak daude. Harremanak, erantzunak, ekintzak eta abarrak eraldatzea bilatzen da pertsona guztiei espazioa emanaz erantzukizuna eta eragiteko gaitasuna izan dezaten balio publikoa sortzeko garaian.
- **Eraikuntza kolektiboa:** bere esentzia berezkoa du gizakiak. Bizitzako esparru guztietan gauzatzen da. Publikoaren eraikuntza horretan, bai eta herritar konprometituak eraikitzen dituzten interakzioen sorreran ere, hau egiten dugunean parte hartzen

dugu: auzo-elkartearen bilera batera joaten garenean, gure lagunekin geuk kudeatutako lokal batean astialdiaz gozatzen dugunean edo laguntza ematen dugunean, besteak beste.

PARTE-HARTZEAREN herrialdeko ibilbide, egonaldi eta esplorazioetan murgiltzen diren bisitariak honako aberastasun hauek nabarmentzen dituzte beti:

- **Eskubideak:** Guzti-guztiei eskubidea dute. Pertsona guztiek, inor kanpoan utzi gabe, eragiten dizkieten jardura eta erabaki publikoetan parte hartu eta parte aktiboa izan ahal dute; halaber, herritarren funtsezko presentzia bermatu beharra dago horietan.
- **Erantzukizunak:** Borondatezkoa eta desiratua da. Horrenbestez, jarrerarekin oso lotuta dauden elementuak ditu. Parte hartzeak autonomia, askatasuna eta erantzukizuna dakartza berarekin.

Ekintza gure gain hartuz lideratu behar dugu prozesua, eskualdeak esploratzea, jada egindako aurkikuntzetara hurbiltzea eta gure ibilbidea egin ahal izatea lortuko badugu. Eta horretarako ezinbestekoa da pertsona orok ditugun gaitasun eta trebetasunak zehaztu eta nabarmentzea, gobernantzaren bidaia berri hori egiten lagungarri izan dakizkigun.

Trebetasun edo gaitasun horiek ez dira, ordea, gure lanbide- eta prestakuntza-bizitzan eskuratu ditugunak, **batera sortzeko eta partekatzeko gaitasun kolektiboak** baizik: prestatzeko fase guztietan zein erabakiak hartzeko orduan herritarrak ikusle ez ezik, protagonista ere badiren bidaia bati heltzeko garaia da.

Ez ahaztu PARTE-HARTZEAREN herrialderako bidaia **funtsezko elementu bihurtu dela gobernuen jarduna herritarren beharrek in lotzeko zein politiken eta zerbitzuen eraginkortasuna errazteko.**

BIDAIARAKO PRESTAKETAK

Esperientzia batean murgildu baino lehen behar adina denbora hartu behar duzue gogoeta egiteko eta bidaia mota hautatzeko. Eta horretarako funtsezkoa da zuen erabakian eragin dezaketen alderdiak, azaletik bada ere, testuinguruan jartzea.

Gidak PARTE-HARTZEAREN herrialdearen hainbat atal aurkeztuko dizkizue

zehazten joan zaitezten nola nahi duzuen izatea zuen bidaia, horretan zer esperientatu eta lortu nahi duzuen, bai eta zer esperientzia saihestu nahi dituzuen ere.

Eta gogoratu: PARTE-HARTZEAREN herrialdea bisitatzen duzuen aldiro esperientzia paregabe eta errepikaezina izango da.

LEGEDIA: Araudia eta legegintza-erreferentziak

TOKIAREN HISTORIA: Egoeraren azterketa eta kontakizun historikoa

GEOGRAFIA: Tokiaren ezagutza, egokigarritasuna eta arrisku-eremuak

BERTAKO BIZTANLEAK, KOLEKTIBOAK ETA LIDERRAK: Agenteak, erreferenteak eta eragile potentzialak

TOKIAREN KULTURA: Kultura parte-hartzailea hainbat esparrutan eta inplikazio-mailak

OSASUNA – TXERTOAK: Arriskuak aurrez ikustea, prebentzioa eta neurri zuzentzaileak

TRESNAK: Parte hartzeko tresnak eta gaitasunak

BIDAIAKO LAGUNAK: Prozesuak behar dituen aliantzen, erakundeen, organizazioen eta kolektiboen garrantzia.

ARAZO LARRIAK HELMUGAN: Arrisku-inpaktua ikusaraztea eta helburuak ez lortzea

ELEKTRIZITATEA – ENERGIA: Energia-, inplikazio- eta dedikazio-maila

MONETA: Kostuaren azterketa eta finantzaketa-bideak aztertzea

JARRERA: Parte hartzeko jarrera eta konpromisoa

Gogoeta: ETA ORAIN ZER? BIDAIATU NAHI AL DUZUE?

LEGEDIA

ARAUDIA ETA LEGEGINTZA-ERREFERENTZIAK

Aldez aurretik garatutako prozesu edo esperientziarik? Horien arrakasta? Horien ahuleziak? Horien emaitzak

Arau-esparruak ezarritako betebeharrak?

Agendan herritarren ekimenetik eragiten duten tentsioak eta presioak?

Bidaiariek herrialde bat bisitatzen dutenean hango legeria ezagutu, errespetatu eta bete behar dute. Sistema demokratikoak eta erreferente politikoak dituzten lurraldeek zuen bidaian egonaldi segurua izan dezazuen bermatuko dute.

PARTE-HARTZEA DEMOKRAZIAREN OINARRIA DA

Herritarren parte-hartzeaz hitz egiten dugunean, politika eta zerbitzu publikoetan gizarte zibilaren eragina eta inplikazioa sustatzeko estrategia, neurri edo ekintza oroz ari gara.

Jakin badakigu parte-hartzea eskubide bat dela, baina nazioarteko, Estatuko zein tokiko araudietatik harago, ez

dugu ahaztu behar **eskubide horren funtsa demokraziaren oinarrian bertan dagoela.**

Eta aukeratzeko orduan ahaztu ezin dugun abiapuntuan jartzen gaitu horrek: demokrazia aurreratuak eta gobernantza-eredu berriek oinarri dituzten funtsezko zutabeetako bat da parte-hartzea.

INFORMAZIO PUBLIKORAKO SARBIDEAREN ERREGULAZIOA BERME BAT DA

Gogoan izan behar dugu informazioa administrazio publikoaren eta herritarren arteko harremanak indartzeko **gakoa dela**. Herrialde ezberdinetan herritarrek informazio publikoa eskuratzea arautzen duten legeak ezberdinak eta askotarikoak dira.

Gure bidaia erabakitzeko orduan kontuan hartu behar

dugu **informazioa eskuratzea bermatzen duten legeek elkarren aurkako zalantzak eta erabakiak ager diezazkiguketela**: informazioa eskuratzeko eskubideak bizitza pribaturako eskubidea bermatu behar du, eta, aldi berean, zabalduz gero publikoaren intereserako kaltegarriak izan daitezkeen informazioen konfidentziasuna babestu. **Nola zehaztu bere mugak?**

ERREFERENTZIA POLITIKOEK PROZESUAN ORIENTATZEN GAITUZTE

Aldez aurretik garatutako prozesuen eta/edo esperientzien erreferentziak bildu behar dituzu, eta ez duzu ahaztu behar administrazio publikoaren jarduna zuzentzen duen lege- eta arau-esparrua.

Erreferentziako lege-esparrua:

- NAZIOARTEKO ESPARRUA
- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak, 21.1. artikuluan, hauxe adierazten du: «Pertsona orok du bere herrialdeko gobernuan parte hartzeko eskubidea, zuzenean nahiz libre aukeratzeko ordezkariei bitartez».
- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak, 25.a artikuluan, zera dio: «Arazo publikoetan parte hartzea, zuzenean edo askatasunez hautatutako ordezkariei bidez».





- EUROPAN
 - Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak, 11., 23., 25. 26., 41. eta 42. artikuluetan, honela dio: «iritzi-askatasuna eta informazioa zein ideiak jaso nahiz ezagutarazteko askatasuna... emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna... adineko pertsonen... gizarte-bizitzan eta kultura-bizitzan parte hartzeko duten eskubidea... ezgaitasunen bat duten pertsonen... gizartearen bizitzan parte hartzeko duten eskubidea... administrazio ona izateko eskubidea... esateko duena entzun dakion... agiri publikoak eskuratzeko (eskubidea)...».
 - Europako Parlamentuaren ebazpena, 2008ko apirilaren 22koa, ekonomia- eta gizarte-koheretza laguntzeko boluntarioek duten eginkizunari buruzkoa (2007/2149(INI)).
 - Ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koheretza buruzko seigarren txostena (EE, 2014ko uztaila). "Administrazioaren modernizazioa eta justiziaren kalitatea eragile giltzarri onartuak dira lehiakortasuna eta hazkunde integratzailea lortzeko. Hainbat Estatu kideek euren erakunde publikoak indartzeko eta hauen ahalmenen garapena lantzeko neurriak sortzen ari dira, politika eraginkorrak, zerbitzu administratibo hobeak, prozedura judizial azkarragoak, erakunde publikoen osotasuna eta gardentasuna hobetu eta plangintza politikaren fase ezberdinetan herritarren parte-hartze zabalagoa lortzeko helburuarekin".
- ESTATUAN
 - Espainiako Konstituzioa, 9.2., 23.1. eta 105. artikuluetan.



AUTONOMIETAKO PARTE-HARTZE LEGEAK

2/2015 Legea, apirilaren 2koa, Valentziako Erkidegoko gardentasunaren, gobernu onari eta herritarren parte-hartzeari buruzkoa.

<http://www.boe.es/boe/dias/2015/04/27/pdfs/BOE-A-2015-4547.pdf>

Kanarietako 5/2010 Legea, ekainaren 21ekoa, herritarren parte-hartzea sustatzeari buruzkoa.

<http://www.boe.es/boe/dias/2010/07/12/pdfs/BOE-A-2010-10985.pdf>

12/2014 Legea, abenduaren 16koa, Murtziako Eskualdeko Autonomia Erkidegoaren gardentasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzkoa.

<http://www.boe.es/boe/dias/2015/01/09/pdfs/BOE-A-2015-184.pdf>

3/2015 Legea, martxoaren 4koa, Gaztela eta Leongo gardentasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzkoa.

<http://www.boe.es/boe/dias/2015/03/27/pdfs/BOE-A-2015-3281.pdf>

8/2015 Legea, martxoaren 25ekoa, Aragoiko jardura publikoaren gardentasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzkoa.

<http://www.boe.es/boe/dias/2015/05/14/pdfs/BOE-A-2015-5332.pdf>

4/2011 Legea, martxoaren 31koa, Balear Uharteetako administrazio onari eta gobernu onari buruzkoa.

<http://www.boe.es/boe/dias/2011/04/30/pdfs/BOE-A-2011-7709.pdf>

11/2012 Foru Legea, uztailaren 21ekoa, Nafarroako gardentasunari eta gobernu irekiari buruzkoa.

<http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=26314>

4/2013 Legea, maiatzaren 21ekoa, Extremadurako gobernu irekiari buruzkoa.

<http://www.boe.es/boe/dias/2013/06/07/pdfs/BOE-A-2013-6050.pdf>

3/2014 Legea, irailaren 11koa, Errioxako gardentasunari eta gobernu onari buruzkoa.

http://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2014-9898

19/2014 Legea, abenduaren 29koa, Kataluniako gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.

<http://www.boe.es/boe/dias/2015/01/21/pdfs/BOE-A-2015-470.pdf>

EUROPAKO KONTSEILUA. ERABAKIAK HARTZEKO PROZESUAN HERRITARREK PARTE HARTZEKO JARDUNBIDE EGOKIEN KODEA

Erabakiak hartzeko prozesu politikoetan herritarrek parte hartzeko printzipio orokorrak, orientazioak, tresnak eta mekanismoak.

http://www.coe.int/t/ngo/Source/Code_Spanish_final.pdf

TOKIAREN HISTORIA

EGOERAREN AZTERKETA ETA KONTAKIZUN HISTORIKOA

Zein da herritarren itxaropenen soslai?

Eta zerbitzu, proiektu edo politikaren arduradunena?

Zer historia eta biografia dituzte itxaropen horiek?



DIAGNOSTIKO PARTEKATUA BEHAR DA ETA IKUSPEGI GLOBALA EDUKI BEHAR DU

Bisitu behar dugun errealitatearen ikuspegi globala, sarritan konplexua izaten dena, testuinguruan kokatu ahal izateko, **diagnostiko partekatua** egin **dezakegun agenteen ikuspegi eta begirada ezberdinak hartu behar ditugu kontuan** (gizarte zibila, arduradunak, langile teknikoak, interes-taldeak...,

Bidaariak, tokiaren historia, jatorria, istorioak eta garapen-faseak ezagutuz gero, tokirako hurbilketa irekia egin ahal dute, eta hori oso baliagarria izango zaie bertakoekin elkarerraginean aritzeko zein horien sustraiak ezagutzeko.

eta, jakina, baita zuena ere).

Horietako bakoitzaren eta lortu nahi dituzten helmuga eta tokien itxaropenak kontuan hartu eta kudeatzeko adina **ñabardura eta ezagutzak** eman behar dizkigu ikuspegi horrek.

JADA PROBATUTAKOA ETA SUSTATU AHAL DENA EZAGUTU BEHARRA DAGO

Dauden mekanismoak eta prozedurak zehazten laguntzen digun diagnostikoa egin behar dugu, bai jada probatu ditugunez bai abian jarri ez baditugu ere **sustatzeko modukoak diren horiei** dagokienez.

Beste eragile batzuen bidaia, bai eta esploratu gabe egonik ere beste batzuek tarteren batean jada ibili dituzten bideak ere, erreferentziatzat hartzea baliagarri izan behar zaigu ekarpen baliotsuak ateratzeko eta **gure erabakia argitzeko.**

Baliagarria ere izan dakiguke PARTE-HARTZEAREN herrialdera maiz bidaiatzen eta elkarerraginean aritzen diren eragile eta pertsonekin **gure diagnostikoa egiaztatu eta osatzea.** Horien ikuspegia, iraganarena zein

orain eta etorkizunarena, lagungarria izan dakiguke gizartearen beharrak eta itxaropenak identifika ditzagun, bai eta parte hartu eta esploratzeko behar handiena duen esparrua ere.

Gure diagnostikoaren arretagunea honako gai hauetan jarri behar dugu: **oraingo egoera** (erantzun nahi zaion beharra); **izan dezakeen bilakaera** (kausa zehazten lagun dezaketen aldaketak eta inpaktuak identifikatzea, eta nabarmentzea horri arreta ematea zergatik den garrantzitsua), **eta horri estaldura edo irtenbidea emateko saioak** (konpondu beharreko behar edo arazo horri kasu egitea helburutzat izan zuten edo duten esperientziak ezagutzea).



TOKIAREN HISTORIA

EGOERAREN AZTERKETA ETA
KONTAKIZUN HISTORIKOA



BATERA SORTUTAKO DIAGNOSTIKOA ONARTU ETA ERRESPEATUKO DA

Diagnostikoa modu partekatuan eta taldean edo alde bakarretik egin daiteke. Bi bide horiek erabil daitezke, baina **modu partekatuan eginez gero**, batera sortutako diagnostikoa izango da, horrek dakarren **balio erantsia ekarrita**, eta, zalantzarik gabe, are gehiago onartu eta errespetatuko da horri esker, eta partekatua ere izango da erantzukizuna.

Bidaia prestatzeko orduan, diagnostiko partekatua egingo bada, komunikazioa **lagundu eta errazten duten jarrerak** izan behar dituzte alderdi guztiek, besteak beste: entzute aktiboa, malgutasuna hartutako jarreraren aurrean, balorazioak errespetatzea eta kritiken aurrean jarrera irekia izatea, negoziazioa, elkar onartzea eta indarguneen balioa nabarmentzea, ordezeko aukerak bilatzea...

Jarrera horiei esker ikuspuntu ezberdinak ezagutu ahal izango ditugu, bai eta ekarpen garrantzitsu guztiak antolatu ere, zer bidaia mota nahi dugun erabaki dezagun.

Egindakoan, diagnostikoa balia dezakezue barneko mailak antolaketa berri bat berriro pentsatu eta baliozkotzeko, eta herritarren benetan zer inplikazio-maila duten ezagutzeko.

KASU-AZTERKETA: GANDSK

Poloniako Gdansk hiriak gobernantza bertikal eta hierarkikoaren kultura-ondare sendoa du. Bere nortasunaren funtsezko gertaera hori ahaztu gabe, ikuspegi holistikoa garatu du hiriaren kudeaketa eta gobernu eraldatzeko. Gizarte-berrikuntza eta parte-hartzea ate ezberdinetatik sartu dira, eta bestelako helburuak eta metodoak dituzte. Europako ekialdeko hirientzat erreferentzia bihurtu da Gdansk, gobernu irekia eta parte hartzea oso testuinguru historiko jakin batean txertatzeko gai izan delako.

http://urbact.eu/sites/default/files/cs-03b_si-gdansk-f3.pdf



GEOGRAFIA

TOKIAREN EZAGUTZA, EGOKIGARRITASUNA ETA ARRISKU-EREMUAK

Arrakasta mehatxatzen duten eragileak eta faktoreak? Porrota laguntzen duten eta zailtasuna dakarten eragileak eta faktoreak?

Zer ekarpen egin daitezke arrakasta indartzeko, porrota saihesteko, zailtasunak liberatzeko?

Beste proiektu batzuk egiten ari al dira? Horien ondoriozko mehatxu eta aukera moduko interakzioak?

Herrialdeetako lurraldean bidaiariak bere premia eta gustuen arabera ibilbideak eta bideak aukera ditzake: kostaldeak, mendiak, mendi lauak, ingurune menditsuak, basoak eta aintzirak. Bidaiariak horrelakoen irisgarritasuna eta horiek ibiltzeko orduan zer beharri erantzun beharko dien ezagutzen badu, errazago hautatu ahal izango du bidea.

PARTE-HARTZEAK PROZESUAREN ELEMENTUETARAKO EGOKIGARRITASUNA ESKATZEN DU

Parte-hartzea baterako proiektu batean, berdintasunak onartuta, lankidetzan aritzea bada, **eztaba daezina da entrenatu beharra dagoela parte hartzeko prozesu bat eraikitzeko.** Eta horretarako, parte-hartzearen egiazko balioaren inguruko **oztopo eta aurreiritzi jakin batzuk gainditu** behar ditugu ezinbestean, baita administrazio publikoei zein

gizarte zibilari dagokigun eginkizunari buruzkoak ere.

Gure burua egokitu beharreko erronka eta eremuak baino ez dira demokraziaren aldarrikapena, ongizate-mailen eskakizuna, gaitasun lehiakorra eta berrikuntza, garapenaren jasangarritasuna, besteak beste.

PROZESUEN BEGIRADA BERRIAK BEHAR DITUGU

Eta errealitate horiek gogoan izanik, herritarrek parte hartzeko prozesuak proposatzeko lana **ezin da asmo-adierazpen huts bat bakarrik izan**, eta prozesurako erraztasunak eman behar ditu, era horretan **eskubideak erabil ditzaten bermatzeko.**

Eremua ongi ezagutzeak begirada berria eskatzen digu, hain zuzen:

- **Parte-hartzea berez ez dela helburua ulertzeko, helburu** jakin batzuk lortzeko bidea baizik. Jendea ez dela parte hartzeko biltzen, batzuetan norberaren eta taldearen interesekin eta besteetan norberaren edo besteen bizi-kalitatea laguntzearekin zerikusia duten alderdiak hobetzeko baizik.
- **Parte hartzeko prozesuaren lidergoa gure gain hartzeko**, eta herritarrei partaidetzaren bidetik politika edo zerbitzua egiteko **borondatea adierazi** eta helarazteko.
- Prozesuan eta balizko erabakiak hartzeko orduan ere esparru horietatik **baztertuta egoten diren gizarte-kolektiboak gehitzeko.**
- Parte hartzeko **borondatea eta interesa** dituzten eragile guztiak **prozesuari lotzeko.**
- Herritarren **gaikuntza eta prestakuntza laguntzeko**, parte hartzeko kultura sor dadin.
- **Gizarteko elkarteek eta mugimendu edo erakundeek** prozesuaren fase guztietan **duten potentziala onartu eta baloratzeko.**
- Antolatu gabeko herritarrek parte hartzeko eta balioa emateko **tresnak eta bideak erraztu eta bideratzeko.**
- Herritarren eta gobernuen arteko informazioari dagokionez **gardentasun eta eraginkortasunarekiko konpromisoa hartzeko.**



GEOGRAFIA

TOKIAREN EZAGUTZA, EGOKIGARRITASUNA ETA
ARRISKU-EREMUAK



ARLOETARA EGOKITZEAK PROZESU ERAGINKORRA SUSTATZEN DU

Arloa ezagutu eta barneratuz tresna egokiak ere sustatu eta gero, politika eta zerbitzuetan bultzatu ahal izango ditugu prozesu **parte hartzea errazteko behar** eraginkorra lortzea helburutzat **beste baldintza bultzatu** ez ezik, hartuta. koordinazioa laguntzeko bide zein

Ibili behar duten guztien egokitzeko gaitasuna aztertzea eskatzen du bide orok, oso samurra edo zaila ematen badu ere.

URBAN EMOTIONAL MAPS

Parte-hartzearen geografia emozionala Boloniako Komunaren esperientzian islatzen da, besteak beste: beren istorioek, pentsamenduek, ideiek eta memoriak mapak eta espazio berriak eraikitzen dituzte. Egiazko Boloniatik harago, bizipen, irudi, elkarrizketa eta ametsez osatutako Bolonia sortzen du parte-hartzeak.

<http://percorsi-emotivi.com/>

THE SNOW SHOVEL CAMPAIGN

Geografia fisikoak noizean behin parte-hartze esperientzia arrakastatsuak dakartza. Tartu izeneko hirian (Estonia), 2008ko neguan, espaloi eta igarobideak, arduraz, elurrik gabe edukitzen zituzten herritarrek ezagutarazi eta jendaurrean aintzatesteko kanpainari ekin zioten (eskerrak emateko txartel bat, udal-webeko atal bat eta elurra kentzeko pala bat barne hartu zituen kanpainak). «Behartzeko» kanpaina izan beharrean (Estonian norberaren ardura da elurra kentzea), eskerrak emateko kanpaina da, herritarren inplikazioa indartzekoa.

http://www.tartu.ee/?lang_id=2

BERTAKO BIZTANLEAK – KOLEKTIBOAK – LIDERRAK

AGENTEAK, ERREFERENTEAK
ETA ERAGILE POTENTZIALAK

*Zer-nolako agente dira balizko parte-hartzaile?
Zeintzuk dira haien ezaugarriak?*

*Zer gaitasun eta trebetasun dituzte prozesu
arrakastatsua gauzatzeko?*

*Agenteen zer muga eta ahultasunek bihurtzen dute
bideraezin ibilbidea?*

Bidaian batean, oroz gain, bertako herritarrekin nahasi nahi izaten dugu. Haien istorioak, arrakastak eta porrotak ezagutzea; haien liderrekin solasean aritzea; pertsona jakitun eta abenturazaleen kontakizunetan murgiltzea; haien etxeetako gutziak dastatzea; haien neska-mutilekin jolastea... Azken batean, ikasi eta haztea.

GIZARTEA GARATZEKO ERANTZUKIDETASUNA

Lurraldearen ezagutzari zuzenean lotuta, eraiki nahi dugun **prozesuak gizarte eta herrialde gisa garatzeko erantzukidetasuna hartu behar du oinarri.**

Bidaiatzea eta herrialde bat deskubritzea herritarrekin harremanetan eta elkarreraginean

aritu gabe, ez-eraginkorra ez ezik, ezinezkoa ere bada.

Gizarte-eraldaketa lurraldea osatzen duten pertsona eta agente guztien konpromiso partekatua dela ulertzen badugu, onartu behar dugu eraldaketa hori gauzatzeko **erantzukizuna ez dela administrazio publikoarena**

soilik; horrela bada, **gainerako erakunde eta instituzioak, bai eta gizarte zibila ere jakina, parte hartzeko prozesuetara gehitzeko gaitasuna ere izan behar du administrazio publikoak, eta**

inguruneak proposatu behar ditu eraldaketak beren egituretatik eta antolaketa-esparruetatik **kanpo ere errazteko**, bai eta behar duten guztian **horiek lagundu** ere.

GIZARTEAK ESPARRU GUZTIAK INPLIKATU BEHAR DU: EKONOMIKO, SOZIAL, POLITIKO ETA KULTURALETIK

Hobetzeko ekintzak eta neurriak sustatzeko **zeharka eta taldean lan egin beharra** errealitatea da aspalditik. Gure bidaia planifikatu eta ikusarazteko orduan **arazo eta eskari berriak topatuko ditugu, baina horiek ez diote esparru bakar bati eragiten**, administrazio osoari baizik; hori dela eta, sinergiak sortu beharra dago, baliabide guztiak optimizatzeko eta, horri esker, emaitza hobea lortu eta gure helmugara irits gaitezen.

Parte hartzeko prozesu berriek, halere, lan egiteko era horrez gain, gizarte zibila osotara inplikatzeko

ere eskatzen dute: nola esparru ekonomiko, sozial eta kulturala, hala elkarrekin kide diren eta ez diren herritarrak.

Pertsonen parte hartzea garrantzitsua da; izan ere, gizabanako gisa, komunitate baten iritzia, askotariko gizarte taldeen interesen edota horien eskarien ordezkari izan daitezke; parte-hartze horretan, dena den, horrelakoen **ordezkagarritasuna baino gehiago, haien diskurtsoaren balioa eta ekarpena bilatzen da.**

BERTAKO BIZTANLEAK – KOLEKTIBOAK – LIDERRAK

AGENTEAK, ERREFERENTEAK ETA ERAGILE
POTENTZIALAK



ERANTZUKIDETASUN-TRESNEK GOBERNANTZA-EREDU BERRIA INDARTZEN DUTE

Prozesu parte-hartzaileak herritarren erantzukidetasunerako tresnak sortu behar ditu politiken eta zerbitzuen zailtasunak eta lorpenak errazago aztertu ahal izateko, eta, bide batez, kudeaketa parte-hartzailearen eredu

politikoa sendotzeko aukera ere eman behar dute.

Eraikuntza kolektiboko edozein prozesurentzat biziki baliotsua izango da esperientzia parte-hartzaileak

trukatzeko sortzen den espazio oro; horrelakoek, izan ere, agente, erakunde eta pertsona ezberdinak ezagutzea erraztu eta bideratzen dute.

AMETSAK ERAIKIKO DITUGU

Ezinezkoa da «laborategi»ko parte-hartzea egitea agenteak inplikatu gabe... European Awareness Scenario Workshop deritzon metodologiari jarraiki, «Ametsak eraikiko ditugu» tailerrak guztira 59 lagun bildu zituen –bizilagunak, elkarteak, adituak, gobernu-erakundeak eta eragile ekonomikoak– Zorrotzaurreko etorkizunaz eztabaidatzeko eta, biztanle guztien ekarpenei esker, hiri eta lurraldeetarako etorkizun jasangarriagoa zehazten hasteko.

<http://zorrotzaurre.org/images/stories/zorrotzaurreant/Publications/EASWResults.pdf>

EMAKUME ABEGITSUEN PROGRAMA

Emakume Abegitsuak aniztasun eta bizikidetzarekiko errespetuari zentzua eman nahi dion hiri-programa da. Parte-hartzearen ezberdinei esker kolektibo ezberdinekin esperientziak abiarazi daitezke gizarteratzea eta, kasu honetan, boluntarioratza indartzeko.

Hau bezala beste programa asko ere badira emakume etorkinen tokiko esparruko berdintasunaren, parte-hartzearen eta lidergoaren jardunbide egokien adierazgarri:

http://xavierballart.uab.cat/papers/011pap_mujer_buenaspracticas.pdf

TOKIAREN KULTURA

KULTURA PARTE-HARTZAILEA
HAINBAT ESPARRUTAN ETA
INPLIKAZIO-MAILAK

Zer dakigu inplika daitezkeen agenteen, enpresen eta/edo erakundeen koherentziaz eta balioez?

Zer aukera dute parte hartzeko esperientziari lotzeko? Zer denbora, ahalegin eta baliabide eman ditzakete?

Gizakiak sortu du kultura; fenomeno arrunta da, gizartean bizitzean aurreko belaunaldiak helarazitakoa ikasten baitugu, eta ezagutza horren bidez kultura are gehiago handitzen lagundu ahal izango dugu. Bidaiak ezberdintasunak, tradizioak, pentsaerak, jarduteko erak... deskubritzeko aukera ematen digu; ikasteko aukera ematen digun toki berri bat azken batean.

PARTE HARTUZ BAINO EZ DUGU PARTE HARTZEN IKASIKO

Herrialde bat bisitatzen dugunean erraza gertatzen ohi zaigu lehen hurbilketetan hango kultura, izaera hautematea: herri irekia, abegikorra, hurbila... diren, alegia.

Berdin gertatzen da PARTE-HARTZEAREN herrialdean, haren

kulturaz hitz egiten dugunean, prozesu eta jarduketa parte-hartzaileei ematen dizkien balioen, jarreraren, jokabide eta portaeren, norbanako eta taldeko trebetasunen eta gaitasunen multzoaz ari gara.

Eta gauza bat argi dago: **parte hartuz ikasten da parte hartzen**. Ez dugu pentsatu behar bitarteko edo teknika bat dela, baizik eta kultura bat

garatzen eta sustatzen ari garela. Eta ez da esparru bakar batean gertatzen, horietan guztietan eta **elkarri loturik** baizik.

KOORDINATZEKO GARAIA DA, EZ ZUZENTZEKO

Kultura hori jada ohartarazten ari zaigu **koordinatzeko garaia dela, ez zuzentzekoa**; kultura horrek koherentzia eskatzen du, baina askotariko funtzionamendu-erritmoak eta -arauak uztartzea ahalbidetzen du; kultura hori administrazioaren ikuspegitik harago doa, eta herritarren ikuspegiarekin lotzen du zuzenean.

Bidaiak gure helmugako kultura zuzenean bizi dezagun ahalbidetzen digu, horrenbestez, **prozesu parte-hartzaileak kultura horren printzipioak ulertzen eta barneratzen ere lagundu behar du, praktika demokratiko horietan trebatzen**.

Eta kultura- eta inplikazio-maila horiek testatu behar ditugu prozesu parte-hartzaile bat garatzeko, eta diseinu zein garapenean zeharkako begirada eransten ere jakin behar dugu **erakundearen gainean koordinazioaren, taldeko lanaren eta diziplinarteko koordinaden bidez esku hartu ahal izan dezagun**.

PARTE-HARTZEAREN herrialderako esplorazioetan ageriko protagonistak izan ez diren agenteen –enpresa eta erakundeen, besteak beste– begirada gehitu behar dugu eta horien inplikazio-maila eta kultura parte-hartzailea ezagutu behar ditugu.

TOKIAREN KULTURA

KULTURA PARTE-HARTZAILEA HAINBAT ESPARRUTAN
ETA INPLIKAZIO-MAILAK



SUSTATZAILEAREN SINESGARRITASUNAK PARTE-HARTZE KULTURA DU OINARRI

Prozesu bat abian jartzean **zintzotasuna, plangintza eta erakundearen sinesgarritasuna ebaluazioa** zutabe dituen kultura batean ere oinarritu behar da hori. Sinesgarritasun horrek erakundearen batera parte hartzen duten enpresa

edo erakundeetan eragin dezake, bai eta elkarteetan eta, oro har, herritarrengan ere.

CONSENSUS

Kultura parte-hartzailea sare fisiko eta birtualeko kultura da. Teknologia berriak Kataluniako herritarrak sarean jartzeko aitzindari izan den proiektua ekarri du parte-hartzearen ibilbideak Consensus izeneko ekimenean. Kasu honetan udalen beraien eta Localret-en konpromiso-mailari esker tokiko esparrutik Internet bidez parte hartzeko plataforma bat sortu ahal izan dute: parte hartzeko esperientziak, kontsulta publikoa, erantzukidetasun-espazioak, administrazioaren eta pertsonen arteko komunikazioa...

<http://consensus.localret.cat/index.php>

OSLOKO HIRI ZAHARRA

Osloko hiri zaharreko prestakuntza-maila eta ongizate-tasak oso txikiak dira Norvegiako batezbestekoaren aldean, eta langabezia-tasa ere Osloko batezbestekoaren bikoitza da. Bazterkeria-egoera hori oinarri hartuta konpromisoa eta gaitasunak sustatzea zen proiektuaren helburua: ingurumena, alojamendua eta osasun-baldintzak hobetzea, enplegua sortzea, kultur ondarea ikusaraztea eta kalitateko hiri-ingurumena lortzea.

<http://habitat.aq.upm.es/dubai/96/bp220.html>

OSASUNA- TXERTOAK

ARRISKUAK AURREZ IKUSTEA,
PREBENTZIOA ETA NEURRI
ZUZENTZAILEAK

Arriskuen prebentzioa egiteko zer gailu erabili behar diren?

Iraganeko esperientzien akats eta ahultasunentzat zehaztutako erantzun eta konponbide berriak?

Garapen-sekuentziako ustekabeak konpontzeko tresnak?

Bidaia bat hasi nahi dutenek oinarrizko aholku batzuk jarraitu behar dituzte: jakin behar dute nora doazen, zer arrisku dituzten eta beharrezko diren neurriak hartu behar dituzte ohiko kontrako erreakzioak saihestearren. Baliteke adituekin harremanetan jarri behar izatea helmugaren arabera beharrezko jotzen dituzten neurriak hartzeko.

ARRISKUAK AURREIKUSTEAK AGENTEETIKO HARREMANA INDARTZEN DU

Horra iritsita, **garrantzitsuena ez da zuzenean ekitea, gogoetarako denbora hartzea baizik**: Zer helburu lortu nahi dugu? Zein da horretarako biderik onena? Nola jakingo dugu helburua lortu dugun? Era horretako galderak aldeztu aurretik ez egiteak sarritan arazoak ekartzen dizkie administrazio publikoaren eta sozietate zibilaren arteko harremanak

indartu nahi dituzten prozesu parte-hartzaileei.

Zehazten ditugun arriskuak prebenitzeko eta konpontzeko prozesuaren esku jartzen ditugun gailu eta tresna guztiek **segurtasun eta konfiantza handiagoa** emango diote gure bidaiari.

BORONDATE POLITIKOA ETA KONPROMISOA, BERMEA EZUSTEKOEN AURREAN

Lantalde sustatzailearen konpromisoa eta borondate politikoa arrakasta lortzeko faktore erabakigarriak dira: herritarren iritziak eta ekarpenak kontuan hartzen direla simulatzea baina egiaz horrela ez egitea prozesuaren zein administrazioaren beraren aurkakoa izango da; gainera, horrek ez digu behar dugun segurtasun eta konfiantzarik emango bidaian topatzen ditugun arriskuak eta ezusteak konpontzeko.

Hori dela eta, arriskuen prebentzioak eta azterketak berrikusten ditugunean, alderdi guztiek **autokritika egin** behar dute akatsak zuzendu eta prozesu horren errealitate zehatzera egokitze mekanismoak diseinatzeko.

Prozesua gauzatuko badugu, gizarte-aldaketa eta -eraldaketan buru izateko gaitasuna oinarri hartuta gizartearen errealitate konplexuari heldu behar zaiola ulertu behar dugu.



OSASUNA-TXERTOAK

ARRISKUAK AURREZ IKUSTEA, PREBENTZIOA ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK



PROZESUAREN MUGEN INPAKTUAK KUDEATU BEHAR DITUGU

Baina **errealitaterako egokitzapen horrek mugak ditu beti**, eta ezinbestekoa da horiek identifikatu ditugun **eduki guztiei aldi berean, modu berean, uneoro eta intentsitate beraz ez erantzutean** sor daitezkeen inpaktuak kudeatzeko. Horregatik, hain zuzen, gure bidaian

zehar ezustek konpondu ahal izateko tresnak eduki behar ditugu.

Horrekin batera, herritarrei informazioa eskuratzeko, kontsultatua izateko eta modu aktiboan parte hartzeko aukera gehiago emateak ere eragin ditzake aurkako jarrerak.

Herritarrek ez parte hartzeak dakartzan eragin negatibo eta kostuekin alderatu behar ditugu arrisku horiek, ordea.

GAZIANTEP: ERAKUNDEA SUSTATZEN

Turkiako Gaziantep hiriak bere garapen, etorkizun eta erronkei buruz eztabaidatu eta parte hartzeko plataforma inklusiboa sortzeko helburu estrategikoa jarri dio bere buruari. Horretarako diagnostiko, analisi, kontsulta eta ebaluazioko sistema osoa diseinatu du prozesu horretan aurrera egiteko, aurrerapenak neurtzeko eta doikuntzak egiteko.

http://www.oidp.net/?id=103&L=1&action=detail&OIDP_content_ID=200&language=ES

DEMOKRAZIA PARTE-HARTZAILEAREN TOKIKO BEHATOKIAK

Bartzelonak hartzen du parte-hartzailearen erronkei buruzko ezagutzaren zeharkako esparru hau. Hauxe da sarearen helburua: **Demokrazia parte-hartzailearen tokiko behatokiaren sare bat sortzea parte-hartzea, politika, gizarte, ekonomia eta lurraldeko testuinguruak oinarri hartuta, ebaluatzeko metodologia bat garatzeko, era horretan parte hartzeko prozesuak ezagutu, aurreikusi eta doitu ahal izateko.**

<http://www.oidp.net/es/proyectos/observatorios-locales-de-democracia-participativa/>

TRESNAK

PARTE HARTZEKO TRESNAK ETA GAITASUNAK

Zer tresna sartu behar ditugu egin beharreko proiektuan? Zer funtzionaltasun behar dute?

Lantalde tekniko motorrak zer gaikuntza behar du edukiak behar bezalako estilo, gako eta formatuz kudeatzeko?

Zer material eta baliabide erabil ditzakegu?

Bidaia guztiek tresna mordo behar dute eguneroko gauzei erantzun ahal izateko. Horrelakoak beti eskura izatea oso baliagarria izango da egiten ditugun ibilbideetan. Baina bere trebetasunek, orientazioak, hizkuntza-ezagutzak eta abarrek laguntzen diote batez ere bidaia hastea erabakitzen duenari; horiek dira helmugarantz bide onetik joanarazten dutenak.

PROZESU BAKOITZAK BERE TRESNAK BEHAR DITU: GUZTIAK EZBERDINAK DIRA

Prozesu, bidaia oro bere ibilbidearen emaitza da; ez dago, beraz, pertsona guztientzat berdin balio duen jarraibide eta urratsik. Oso argi izan behar dugu abiapuntua zein den neurrirako prozesu bat diseinatu ahal izateko; eta zer tresna eta erreminta ditugun edo izan

ditzakegun ezagutu behar dugu, bai eta zer trebetasun eta gaitasun baliagarri izan dakizkigukeen ere.

Tresna eta gaitasun berek ez dute gure bidean zertan emaitza bera bermatu. Bidaian zehar **egokitze** **trebetasuna** eta **gaitasuna**

izan behar dugu unearen eta eraginkorrenzat jotzen ditugunak jarritako helburuaren arabera prozesuan txerta ditzagun.

TRESNAK, HELBURU, HARTZAILE ETA BALIABIDEekin BAT EGINIK

Nola hautatu helburuak lortzeko moduko tresnak? Hautaketa hori urrats garrantzitsua da plangintzan eta herritarren parte-hartze aktiboan.

Tresnak eta erremintak helburuekin, hartzaileekin eta erabilgarri ditugun baliabideekin bat eginik daudenean, ohartuko zarete tresna bakar bat

ez dela aski hartzaile ezberdinekin behar den harremana lortzeko eta ezarritako helburuak lortzeko. Oro har, **tresna sorta bat eduki beharra dago.**

TRESNAK

PARTE HARTZEKO TRESNAK
ETA GAITASUNAK



TRESNEN ETA GAITASUNEN KATALOGO ZABALA BEHAR DA

Tresnen eta gaitasunen katalogoa zehazteko, hauxe behar dugu:

- Erabilgarri dauden tresnen **erabateko ikuspegia** eduki.
- **Tresnak** jarritako **helburuen, hartzaileen eta baliabideen arabera hautatzea**, ez alderantziz.
- Gogoeta egitea tresna tradizionalak, beharrezkoa bada, **IKTak oinarri dituzten tresna berrietan nola txerta daitezkeen**.
- Tresnen erabileraren **plangintza** zorrotzak eraginkortasun handiagoa ahalbidetzen du (hau da, zeregin jakin bat nork, noiz eta non egin behar duen, eta abar.).

Erabilgarri dauden tresnak eta mekanismoak zehaztuta, azterketa egin behar dugu bidaiari ekin edo ez erabakitzeko orduan garrantzitsuak diren **bi alderdi oinarri hartuta: prozesu parte-hartzaileko konpromiso politikoaren maila eta horretarako eskuragarri dauden baliabideak**.



HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN ERREGELAMENDUA

Kordobako herritarren parte-hartzearen erregelamendua parte-hartzea sustatzeko diseinatutako tresna da, eta, zehazki, herritarrek era horretako prozesuetan parte hartzea orientaturik dago. Dokumentu ofizial horrek parte hartzeko sistema sortu eta sendotzeko udalaren konpromisoa adierazten ez ezik, horretarako borondatea ere orientatzen du, bai eta bere buruari eta hiriari behar diren tresnak ematekoa ere.

http://www.cordoba.es/images/stories/documentos/Ayuntamiento/Reglamentos_Organicos/Reglamento_de_Participacion_Ciudadana.pdf

KASU-AZTERKETA: LEEDS

Leeds hiriak, Londres alde batera utzita biztanle gehien dituen Ingalaterrako hirugarren hiriak, NEET-FREE city bat –nirik gabeko hiri bat, alegia– sortzeko proiektuari ekin zion, gazteei aukerak eskaintzeko eta, horrela, gazteen langabezia-tasa handiak saihesteko. Tresna funtsezkoa da esperientzia honetan, besteak beste, hauek diseinatu baitzituzten: ikuspegi integratua (sozial eta ekonomikoa) duten neurrien sorta handi bat, gobernuaren eta herritarren arteko City Deals deritzenen tankerako hitzarmenak eta «bost hiru bat» izeneko tresnak (5 enplegatzailek zer egin dezaketen, horretarako zer 3 arrazoi dituzten eta ekintza horren emaitza positibo 1). Leedsen adibidea hainbat tresna eta erremintaren bidezko azeleratzeko eta hazteko kasua da; tresnok, halaber, bestelako espazioetan ere aplikatzeko moduko checklist edo egiaztapen-zerrenda ere izan daitezke.

http://urbact.eu/sites/default/files/cs-02a_jg-leeds-f4.pdf

BIDAIAKAKO LAGUNAK

PROZESUAK BEHAR DITUEN ALIANTZEN, ERAKUNDEEN, ORGANIZAZIOEN ETA KOLEKTIBOEN GARRANTZIA

Prozesuaren antolaketa aurreraturako inplika daitezkeen gertuko ez diren kolektiboak?

Plantea daitezkeen erakunde laguntzaileak, gaitasuna, inplikazio-mailak eta -euskarriak?

Planteatutako trazabilitatea finkatzeko aktiba daitezkeen eragile berriak?

EZINBESTEKOA DA SARE BAT EHUNTZEA

Parte-hartze aktiboko prozesu batean murgiltzeko bidaia diseinatzeko dugunean, erabili beharreko tresnak eta bilatu beharreko helburuak ez ezik, erabilgarri ditugun baliabideei zer erabilera eman behar diegun ere erabaki behar dugu, bai eta **erabakiak hartzeko prozesuan iritziak nola txertatuko ditugun** ere.

Norekin bidaiatzen duzun, zeharkaldi bat ahaztezina edo amesgaiztoa izan daiteke. Bidaiarekin konprometitzen diren pertsonak aurkitzea garrantzitsua da; horrelakoekin bat eginik ibili eta oztopoak gainditzeko aukera eduki behar duzue; pasioz bizi behar dira eta herrialdea beste begirada batez ezagutzeko aukera eman behar dizute.

Horregatik galdera hauek egin behar ditugu bidaiari ekin aurretik: Norengana jo behar dugu? Zer kolektibok edo interes-taldek jaso beharko dute informazioa? Kontsulta nori egin behar diogu? Nor gonbidatu behar dugu modu aktiboan parte har dezan?

Gizarte zibila, bere dimentsio guztiak

barne, prozesu parte-hartzaile baten inguruan bildu eta inplikatzeko ezinbestekoa da **errespetu-, konfiantza- eta konplizitate-sare bat ehuntzea**, funtsezko eragileak

AGENTEEN ETA ERAGILEEN DEFINIZIOAK PROZESUA LEGITIMATUKO DU

Parte hartzen duten agenteen ordezkagarritasunak ezin du prozesuaren zilegitasuna zalantzan jarri. Prozesuarekin gure helburua aldaketaren bat eragitea da beti, eta horrek **aldaketa-agenteak eskatzen ditu; horrenbestez, ez da garrantzitsua agente horiek herritar guztien edo kolektibo jakin baten ordezkari diren.**

Eta ez dugu ahaztu behar bidaia

- **Gizarte zibila:**
 - Herritar edo banako gisa
 - Elkarte eta erakunde sozialak, kulturalak...
 - Interes-taldeak
 - Enpresak eta erakundeak
- **Politikari eta agintariak / Erakunde eta organismo publikoak**
- **Zerbitzu publikoetako teknikari eta profesionalak**

identifikatu, herritarren kolektibo ezberdinen begiradak eta ekarpenak txertatu eta garatzeko behar diren aliantzak bilatu ahal izateko.

hau inprobisatzerik ez dagoela; hori dela eta, izan litezkeen agertokiak eta estrategiak aurreikusi beharko ditugu, bidaian laguntzen gaituzten taldeetako bakoitzarekin garatu ditzagun.

Gure bidaiaren helburua eta planteamendua gorabehera, hauek izan litezke parte har lezaketen eragileak eta agenteak:



BIDAIAK LAGUNAK

PROZESUAK BEHAR DITUEN ALIANTZEN, ERAKUNDEEN, ORGANIZAZIOEN ETA KOLEKTIBOEN GARRANTZIA



Parte hartzen duen agente bakoitzaren eginkizuna definitzea ezinbestekoa da, eginkizun ezberdina bete behar baitute guztiek.

Pertsona oro izan daiteke «aditu», esperientzia baitu bere inguruko arazoetan eta, *a priori*, ekarpen handia

egin dezakete arazoak hautemateko eta, zergatik ez, konpontzeko orduan.

Baina ez dugu inola ere pentsatu behar prozesuan pertsona guztiok berdinak garela, hori ez baita horrela; **pertsona bakoitzak ingurune eta baldintza ezberdinak behar**

ditu parte hartzeko. Teknokrazia eta burokraziatik ihes egiteko ahaleginak egin behar ditugu, bai eta prozesuan parte hartzen dutenak beti berdintasun- eta zilegitasun-baldintza berberetan egiteko ere.

SUSTATZAILEAK PROZESUAN LIDER IZAN BEHAR DIRA

Bidaia- eta inplikazio-lagunak identifikatzeko fase honetan sustatzaileen **lidergoak xede hauek izan behar ditu:**

- **Ezagutzea:** lurraldeko talde, kolektibitate eta komunitate ezberdinen helburuak, eskariak eta gaitasunak ezagutu, entzun eta ulertzea.
- **Bitartekari izatea:** jarrerak eta interesak identifikatzea, indarrak orekatzea eta alternatibak sortzea talde ezberdinen interes legitimoak era eraikitzailean antolatzeko.
- **Ikuspegia sortzea:** etorkizuneko ikuspegia sortzea. Partekatu eta integratua.
- **Elkarlanean aritzea:** aldaketak bultzatzeko aliantzak eraikitzea.
- **Konbentzitu eta hunkitzea:** balioak azaldu eta komunikatzea, kultura sortzea.

Eta agente guztiak modu egoki eta arduratsu batez parte hartu eta eginkizuna bete ahal izan dezaten, ezinbestekoa da begira eta tresnetan **lagundu eta gaitzeko prozesuak** antola ditzagun; honako hauetan:



- **Printzipio parte-hartzaileetan.**
- **Gaitasun eta trebetasun sozialetan** (komunikazioa eta gatazkak konpontzea, besteak beste).
- **Metodologia parte-hartzaile eta berritzaileetan.**

KOMUNITATE BIZIA SORTZEN

Ipar Irlandako Dungannongo toki-komunitateko taldeak, egoera politikoak polarizatuta, lan egiteko eta interes zein helburuak partekatzeko mobilizatu ziren. Berroneratzeko eta ingurumenari buruzko programak garatzea izan zen hesi politiko eta erlijiosoak gainditzeko biderik eraginkorrena.

<http://www.dungannon.info/index.php/education-head/community-participation>

ZURE AHOTSA EUROPAN

Europako Batzordeko sarbide bakarreko ataria da; horren bidez askotariko kontsulta, eztabaida-foro eta bestelako tresnetan sar gaitzeko Europako erabakitze prozesuan eginkizun aktiboa betetzeko.

http://ec.europa.eu/yourvoice/index_es.htm

ARAZO LARRIAK HELMUGAN

ARRISKU-INPAKTUA IKUSARAZTEA ETA HELBURUAK EZ LORTZEA

Izan litezkeen porrot osoen edo partzialen profila eta ezaugarriak? Eragiketaren batean edo proiektu globalean porrot egitearen ondorioak?

Porrotak zer eragin izan dezake sustatzaileen zilegitasun eta sinesgarritasunaren gainean?

Porrot horrek etorkizuneko sustapen eta proposamenei zer muga jartzen dizkie?

Bidaia oro antolatu aurretik, herrialde bakoitzaren ezaugarrien berri jaso behar dugu. Herrialde oso bat arriskutsutzat jotzerik ez badago ere, badira besteak baino arriskutsuagoak diren eskualdeak. Irten aurretik ibilbideak nola dauden arretaz aztertu eta kontsultatu behar dugu, eta biderik seguruenak hautatu behar dugu.

PROZESU GUZTIEK ARRISKUAK DAKARTZATE

Guztiek, ustez zehaztu eta diseinatu dauden bidaiek barne, **arriskuak eta zailtasunak dakartzate**: sortutako **itxaropenei ez erantzutea** edo horiek ez gauzatzea; sektore eta interes-talde ezberdinen arteko **tentsioen kudeaketa**; nola **parte hartu** ez

dakiten pertsonak; **herritarrek beren burua prozesutik baztertzea** ez dagokiela eta administrazio publikoaren erantzukizuna dela iritzita; **parte-hartzea** presionatzeko espaziotzat hartuta **desitxuratzen duten taldeak** eta herritarrak; **parte-hartze txikia**;

kostu ekonomiko eta politiko handia; kudeatu eta erabakiak hartzeko erritmoa frenatzea; emaitza ez lortzearen ondorioak;

sustatzaileen zilegitasun eta sinesgarritasunarekin jolasteko arriskua, eta abar.

ERANTZUKIDETASUNA ETA INPAKTUA FUNTSEZKOAK DIRA GURE HELMUGAN

Bidaia egin ondoren, bi gauza baloratu behar ditugu: batetik, horren **inpaktua eta emaitza espero eta planifikatu duguna** izan den; eta bestetik, prozesuaren sustatzaile gisa **gure gain hartu dugun erantzukidetasuna**.

Biok elkarri lotuta daude, eta, prozesuaren garapenean, eragin handia izango dute hartzen joaten garen erabakietan. Horregatik, hain zuzen, nabarmendu beharra dago jakitun garela beste batzuekin

bidaiaitzeko orduan ez dela erraza erantzukizunak utzi eta partekatzea ez badakigu horiek onartu eta kudeatzeko gaitasuna dagoen. Baina lehen esan dugun moduan, parte hartuz ikasten da parte hartzen, eta erantzukizunak ezin izango ditugu inoiz modu partekatuan gure gain hartu ez badiegu bidaian konfiantza-espazio hori uzten laguntzen gaituzten pertsonei.

ARAZO LARRIAK HELMUGAN

ARRISKU-INPAKTUA IKUSARAZTEA
ETA HELBURUAK EZ LORTZEA



ARAZO ASKOK KOMUNIKAZIOAN DUTE JATORRIA

Argi dago gizarte zibilaren aldetik **inplikazio-maila handia** (kopuruari begiratu beharrean, mailari), **eta inpaktu aitortu eta sozializatu bat**, edukitzea dela parte hartzeko prozesuen funtsezko helburuetako

bat; **ez da beti lortzen**, ordea. **Sarritan komunikazioaren kudeaketagatik** izaten da.

Onartu behar dugu PARTE-HARTZEAREN herrialderako bidaia

orok arriskua dakarrela berarekin. Iritzia emateko arriskua, parte hartu edo ez parte hartzekoa, modu batera eta bestera sentitzekoa; askatasunaren arriskua, azken finean.

ERAKUNDEEN FUNTZIONAMENDUA HOBETZEKO ESKULIBURUA

Galdesorta bat da, diagnostikoa, hobetzeko proposamenak eta ebaluazioa barne hartzen dituen ibilbidean ezustekoak saihestearren.

<http://www.l-h.cat/gdocs/d7852766.pdf>

THE PARTICIPATION TOOLKIT

Eskoziako Osasun Sistemako parte hartzeko tresna-kutxak ekintzaren osteko berrikuspenera barne hartzen du aurrerapenak, ustekabeko ondorioak zein lortu gabekoak ikusi ahal izateko. Interesgarria ere bada horren metodologiari esker etengabeko berrikuspenera ere egiterik dagoelako, eta ez prozesuaren amaieran soilik.

http://www.scottishhealthcouncil.org/patient_public_participation/participation_toolkit/the_participation_toolkit.aspx#.VaVjIV_tmko

ELEKTRIZITATEA – ENERGIA

PROZESUAREKIKO ENERGIA-, INPLIKAZIO- ETA DEDIKAZIO-MAILA

Prozesuaren kostu ekonomiko eta materialak? Zer denbora behar da?

Zer giza talde eta zer denbora-erabilgarritasun behar dira? Zer inpaktu du zerbitzuaren jarduketa guztietan?

Lantaldea ideologia, jarrera eta emozio aldetik aktibatu behar al da sustatutako proiektua gidatzeko?

Bidaia bisiten eta ibilbideen batura baino gehiago da; sentsazioen eta emozioen harmonia bat da, eta bidaian murgildu diren pertsona guztiak hartzen ditu barnean, bidaia bizipen bihurtu ere bai. Gauza berriak, balioz betetako pertsona ezezagunak, zaporeak eta lurrin biziak... deskubritzeak energiaz betetzen gaitu, eta bidaiaren protagonista ere egiten gaitu, horren denborak eta uneak aukeratzen baititugu.

INPLIKAZIO-MAILAK MARKATUKO DU PROZESUA

Oso garrantzitsua da bultzatutako prozesu parte-hartzaile guztiek helburutzat herritarrengan zein administrazioan balioa sortzea izan dezaten, nahiz eta administrazioak, zenbaiten ustez, herritarrek egiaz

interesa duten bidaietan parte hartzen beti uzten ez duen, eta beste batzuetan anekdotikotzat har daitezkeen zeharkaldiak eskaintzen dituen.

Hori dela eta, era guztietako ahaleginak eta prozesuko inplikazio-maila baloratu eta ebaluatu behar dira, betiere helburua eta bilatzen

eta espero dugun inpaktua kontuan harturik.

GARRANTZITSUA DA DENBORAK ETA DEDIKAZIOAK KUDEATZEA

Une honetan inork ez du zalantzan jartzen PARTE-HARTZEAREN herrialdera bidaiatzea komenigarria eta interesgarria dela, baina erdigunea gure ibilbidearen kopuruan jarri beharrean haren kalitatean jartzen duen prozesua kudeatzeko gaitasuna garatu behar dugu. Eta inplikazio-maila izango da hori neurtzeko modu zuzena.

Eraitza onak lortuko baditugu, administrazioaren eta gizarte zibilaren arteko sinergiak, erantzukidetasuna eta lankidetzaren funtsezkoak dira. Horiek guztiek parte hartzen badute, bidaia esperientzia bizia izango da, eta parte hartzen duen agente edo pertsona bakoitzak horretan emandako denbora eta izandako dedikazioa kudeatzea inplikazio-mailarekin zuzenean lotuta egongo da.

ELEKTRIZITATEA - ENERGIA

PROZESUAREKIKO ENERGIA-, INPLIKAZIO-
ETA DEDIKAZIO-MAILA



KONPROMISOA, INPLIKAZIOAREN BERMEETAKO BAT

Bermeak dituen bidaia sustatu behar dugu. Agenteak bidaian zer konpromiso zurgiltzen diren aztertzeko orduan, **komunikazio ona, gardentasuna zein kultura**

parte-hartzailearen gaikuntza eta transmisioa, besteak beste, ezinbestekoak dira.

Horregatik ebaluatu behar ditugu

prozesura bideratu beharreko ahalegin eta inplikazio-mailak zein kostuak.

AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako ekimen parte-hartzaile honen bidez, herritarrek legealdiko foru aurrekontuetako zati bat nola kudeatuko den erabakitzen dute Lehen fasean, parte-hartze modu ezberdinak baliatuz, herritarren ideia eta ekarpenak jasotzen dira.

<http://www.gipuzkoaherritarrekin.net/partaidetzazko-aurrekontuak/berria/657>

NETWORK OF ICT COLLABORATION. ENERGIA ETA PARTE-HARTZEA

Oraingoan, EBko egitura-funtsen bitartez, Greziako hiri handienetako 75 (Atenas eta Tesalonika kanpo utzita) lotuko dituen zuntz optikoko sarea garatzeko jarritako energia, era horretan sektore publikoa eta pribatua batzeko; horri esker Grezian zuntz optikoa eta Komunikazioetako Azpiegitura Komunak udalen partaidetzarekin hedatzeko prozesua ez ezik, agintari publikoen eta gainontzeko sektoreen arteko elkarrizketa iraunkorra ere laguntzen da.

<http://eparticipation.eu/2012/12/network-of-ict-collaboration-of-municipalities-of-south-western-greece/>

MONETA – DIRUA

KOSTUAREN AZTERKETA ETA FINANTZAKETA-BIDEAK AZTERTZEA

Kostu ekonomikoaren azterketa proiektuaren xedearen gainean esperotako emaitzei dagokienez? Kostu ekonomikoaren balorazioa sustatzaileen zilegitasun, ikusgarritasun, sinesgarritasunari zein presentzia, irudia eta marka sendotzeari dagokienez?

Baliabideak partekatzeko sinergien eta kolaborazioen aukera?

Proiektu sinesgarria eratzeko unean erabilgarri dauden baliabideak? Ahalmen handiagoko proiektu berri baterako epe labur eta ertainera erabilgarri dauden baliabideak? Parte-hartzea diruz saritzeko ahalmena?

Helmuga jakin baterako bidaia hautatzeak diru-ahaleginaz gain, denbora ere eska dezake agirien izapideak, lekualdaketak... egiteko; baina ez dugu ahaztu behar egiteko era asko daudela, eta gure aukeren eta interesen arabera hobekien dagozkigun modua eta bidaia hauta ditzakegula.

BALIABIDEAK ONGI KUDEATZEA AZKEN ETEKINA ETA INPAKTUA HOBETZEKO


PARTE-HARTZEAREN herrialderako bideak **kostuaren, etekinaren eta azken inpaktuaren arteko oreka bermatu** behar du. Baliabideen koordinazioa zehatza izan behar da prozesuaren fase guztietan kontrola eta inbertsio ona bermatzeko: hasierako fasetik hedatu eta inpaktuen iraunkortasuna bermatzeko fasera arte.

Bidaian gure baliabideez gain lagun ditugun agente eta erakundeak ezagutzea ere garrantzitsua da. **Sinergiarako eta bidaiaren bideragarritasuna lagun dezaketen baliabideak partekatzen saiatzeko garaia da.**



MONETA - DIRUA

KOSTUAREN AZTERKETA ETA
FINANTZAKETA-BIDEAK AZTERTZEA



PROZESU PARTE-HARTZAILEAK BALIABIDEAK ETA LOTURAK BEHAR DITU

Gauza bat argi dago: **informazio, kontsulta eta parte-hartze aktiboak baliabideak behar dituzte** (denbora, esperientzia eta dirua), administrazio publikoaren beste edozein jarduerak bezalaxe.

Baina ez dezagun gure burua engainatu, parte-hartzeari esker

emaitza sendoak lortzeko behar diren diru-baliabideak, oro har, txikiak dira politika edo zerbitzu jakin batean inbertitutako funts guztiekin alderatuta.

Administrazioaren eta herritarren arteko loturak bideratzen eta indartzen dituzten **prozesuetan**

inbertitzea onuragarria eta errentagarria dela ulertuko genuke, politika eta zerbitzu publikoak gaizki pentsatu eta/edo gauzatzeak sortutako arazoak eta higadura aztertuz gero.

AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK

Aurrekontu parte-hartzaileak hiriarekiko kudeaketa- eta konpromiso-tresna bat dira, eta udal-baliabideen zati bat nora bideratu proposatu eta erabakitzeko aukera ematen du.

<http://www.presupuestosparticipativos.com>

CITIES USING THEIR PURCHASING POWER

Herritarren erosketaren ahalmenak gizarte-berrikuntza eta parte-hartzea lagun ditzake. Herritarrek arazoentzako beste irtenbide batzuk esperimentatzen dituzte erosteko ahalmena erabiliz gizarte-berrikuntzen garapena orientatu, bizkortu, handitu eta sistematizatzeko.

<http://urbact.eu/cities-using-their-purchasing-power-facilitate-social-innovation>

JARRERA

PARTE HARTZEKO JARRERA ETA KONPROMISOA

Proiektuaren maila eta agente zuzentzaile-sustatzaile ezberdinen babesa? Lantalde honen indarra, koherentzia eta sendotasuna?

Aktibatzaileen gogo, grina eta entusiasmoa?



Talde bultzatzailearen sinesgarritasun politiko eta soziala? Gaitasuna?

Jakin badakigu ez dela erraza bidaiatzen hastea. Gehienok ezezagunaren beldur izaten gara; zalantzak izaten ditugu ezberdin zaigunaren aurrean, baina gune erosotik ateratzeak aukera ematen digu ausartegi edo abenturazaleegi generitzen gauzak esploratzeko. Bidaiatzeko ez gara beldur izan behar atzean zer uzten dugun, eta ilusioa izan behar dugu aurrean zain dugunagatik.

PARTE-HARTZEA ERDIGUNEAN DAGO

Inork ere ezin du ukatu parte-hartzearen gaia erdigunean dagoela eta gaurkotasun handikoa dela, bai eztabaida eta agenda politikoan, bai esparru sozial, ekonomiko, profesional eta akademikoan. Demokrazia eta herritartasuna terminoak, besteak beste, pentsaezinak dira pertsona eta gizarterik gabe, baita gobernantzaren eta forma politikoen eredu berririk gabe ere.

Garaiotan **konplexutasuna eta aniztasuna onartu behar ditugu** gure bizitza pertsonal eta sozialaren berezko osagaitzat, eta, **gizartea eta gure ongizatea elkarrekin hobetzea**, PARTE-HARTZEAREN herrialdera bidaiatzea ahalbidetzen duten **sistema inklusiboak eratuz** baino ez dugu erdietsiko.



JARRERA

PARTE HARTZEKO JARRERA ETA
KONPROMISOA



HERRITARREN PARTE HARTZEKO MEKANISMOAK EZARTZEKO GARAIA DA

Testuinguruan jarri ditugun ikuspegiak oinarri hartuta (lankidetzaren sinergia, baterako sorkuntza...) herritarrek **parte hartzeko prozesuak eta mekanismoak ezartzea lagungarria izango da gizarte inklusiboa garatzeko, ordezkaritza txikia duten gutxiengoak barne hartuta.**

Bidaiak prozesua sustatzen ari diren pertsonen konpromisoa eta inplikazioa beharko ditu; ilusio eta gogo handiz, gainera, bultzatzen ari diren prozesuak pertsonak erdigune baititu, eta gure gizartearen eta ongizate-sistemaren etorkizunean eragingo baitu.

DISEINATU ALCOBENDAS 2020

Konpromiso publiko-pribatua eta Hiriko Kontseilu Sozialak prozesua hasi eta amaitzeko espaziotzat duen eginkizuna funtsezkoak dira hiriaren etorkizuna eraikitzeko metodologia garatzeko. Plan estrategikoa aldi berean hiru mailatan (maila politiko, tekniko eta herritarrena) lan egitearen konbentzimendutik sortu da.

https://www.alcobendas.org/recursos/doc/Planificacion/922214304_432014221934.pdf

<http://www.alcobendas.org/es/portal.do?TR=C&IDR=2146>

THESSALONIKI

Tesalonika Greziako bigarren hiriaren eta herrialdeko unibertsitategunearen jarrera eta ezaugarriek, gazteen langabezia-tasa handiak edukita, zentzua ematen diote gazte-ekimenak laguntzeko planari; behetik gorako ikuspegia du, enplegua eta aukerak sortzea gidatzen duten gazte artista eta sortzaileen talde baten bultzadagatik ulertzen dena. Bat-batean, momentuaren ondorioz, sortutako parte-hartzearen adibidea da; «neurritako» eraikuntza, baterako sorkuntza, talentu gaztea, malgutasuna, emaitzen lorpena eta askotariko ekimenen batura ditu oinarri.

http://urbact.eu/sites/default/files/cs-02b_jg-thessaloniki-f4.pdf

ETA ORAIN ZER? BIDAIATU NAHI AL DUZUE?

PARTE-HARTZEAREN herrialderako bidaia mota aukeratzea funtsezko faktoreetako bat da ahaztezina izan dadin eta bidaiatz goza dezazuen. Bidaiak esperientzia biziki subjektiboak dira. Pertsona bakoitza mundu bat bada, pentsa ezazue nolakoa izango da bidaia bakoitza!

Horregatik ezin dizuegu toki jakin bat edo helmuga mota zehatz bat edo bidaia mota bat aholkatu, ezta norekin bidaiatu behar duzuen ere. Pertsona bakoitzak gauza ezberdinak bilatzen ditu bere bidaietan, motibatzen, dibertitzen duena, balioa ematen diona, deskubritzeko plazera...

PARTE-HARTZEAREN herrialdea deskubritzeko gure ustez garrantzitsuak diren alderdiei buruzko orientazio eta hurbilketa honen ostean, bidaiatu nahi al duzue?

Zein da gure bidaiaren helburua? Zertarako bidaiatu nahi duzue? Garrantzitsua da argi izatea zer lortu nahi duzuen bidaiarekin, baita bidaia horrek zer eragin izango duen zuen etorkizun hurbilean ere.

- *Merezi du bidaiatzea? Bidaiak konbentzitzen al zaituzte? Unea dela uste al duzue?*

Zer bidaia mota egin nahi duzue? Zer egin nahi duzue bidaietan? Bidaia oro gainerakoetatik ezberdina da, hori dela eta argi eduki behar dugu nola bidaiatu nahi dugun. Aukeraren arabera helmugak baztertzen eta zuen ideia hobekien egokitzen direnak hautatzen hasi ahalko zarete.

- *Gustuko al duzue aukeratutako bidaia mota? Aztertu al dituzue bidaia mota hori ahalbidetzen edo zailtzen duten elementuak? Antolatu al zarete prestatzeko?*

Norekin bidaiatu nahi duzue? Garrantzitsua da helmuga pertsona guztiei egokitu eta gustatzea. Ez da gauza bera izango ezezagunekin edo lagunekin bidaiatzea, familiarekin edo bikotekidearekin...

- *Ba al duzue bidaietan lagunduko zaituzteten pertsonarik? Nahi al duzue bidaietan horiek laguntzea? Konfiantza eta segurtasuna ematen al dizute?*



ETA ORAIN ZER? BIDAIA TU NAHI AL DUZUE?


Zer aurrekontu duzue bidaiarako? Horrek faktore askotan eragingo du: zenbat egun bidaiatu, zer garraio edo ostatu mota aukeratu...

- *Ba al daukazue baliabiderik bidaia egiteko? Aurre egin ahal diozue bidaiak dakarren gastuari?*

Zer denbora duzue bidaiarako? Bidaia egiteko garaia eta/edo datak ere garrantzitsuak izango dira helmuga bat edo beste bat aukeratzeko. Egia da sarritan ezin ditugula datak aukeratu, baina ez da gauza bera garai batean edo beste batean bidaiatzea.

- *Ba al duzue aski denbora aurreikusitako guztia ikusi eta egiteko? Nahi zenituzten datetan bidaiatu al dezakezue?*

Bidaiatzea erabaki baduzue prestatzen lagunduko dizuegu, eta ez baduzue egin, berdin ere irakur ezazue, iritzi aldarazi ahal zaituzten faktoreak deskubritu ahal izango baitituzue, edo ez...



BIDAIA

PARTE-HARTZEAREN herrialdea aniztasun handiko lurraldea da; era askotako kulturak, kontinenteak, ozeanoak, historia eta pertsonak ditu. Aniztasuna hori dela eta, milaka ibilbide ezberdin eduki behar ditugu diseinaturik bidaia-gidari gisa.

Baina halere ere oso jakitun gara programatutako bidaiak ez direla beti zuen beharretara egokitzen. Baliteke hirugarren pertsonak egindako proposamenak zuentzat egokiak ez izatea data, bidaiaren iraupena, ibilbidearen diseinua, aurrekontua eta abarrak direla kausa.

Horregatik zuen bidaia diseinatzea proposatzen dizuegu. Neurrirako bidaia bidaiatzeko modurik onena da, gustu eta lehentasun guztiei egokitzen baitzaie; talde bakoitzak nahi dituen iraupen eta estiloarekin baino ez dira ibilbideak diseinatu behar.

Finkatu ezinbesteko deritzozuena, eta zuen bidaiaren azken erabakia erraztu eta orientatuko dizuegu: ibilbideen diseinua, bisita pertsonalizatuak, bidaiaren plangintza zein koordinazioa eta jarraipena, harik eta itzultzen zareten arte.

DISEINUA

HEDAPENA

EBALUAZIOA
ETA
IKASKUNTZA

Oso garrantzitsua da zuen bidaia diseinatzea ahalik eta probetxu handiena ateratzeko, ustekabeak edo zailtasunak saihestu ahal izateko eta aurreikusitako denbora eta kostua bete daitezen.

Bidaiak harrituko zaituzte, jakina, bai eta bidean ustekabeak eta pozak jarriko ere; horiek ez zenituen espero

izango, aurreikustea ere ezinezkoa baita.

Baina PARTE-HARTZEAREN mundurako bidaiak diseinu, plangintza bat behar du; helmugara iristeko lagungarri izan daitekeen guztia maletan sartu beharra dago, horri esker esperientzia horretatik ikasi ahal izan dezazuen.

DISEINUA

DOKUMENTAZIOA: Abiapuntua aztertzea

IPARRORRATZA: Helburuak eta azpihelburuak zehaztea

MAPAK: Plangintza eta garapen-faseak

MOTXILA – EKIPAJEA: Inplementatzeko estrategia metodologikoa

BOTIKA-KUTXA: Giza baliabideak, baliabide materialak eta ekonomikoak

DISEINUA DOKUMENTAZIOA

ABIAPUNTUA AZTERTZEA

Jorratu beharreko gai zehatzen oinarrizko ezagutza, ezagutza nahikoa edo aurreratua?

Informazioaren eta datu-horniduraren iturriak lokalizatuta al daude? Egoera eta lurraldea ikuspegi estrategiko eta operatibotik kokatuta al daude?

Testuinguru-, teoria-, ideologia-, oinarri- eta jarrera-esparruak ongi erabili al dira?

Bidaiak abiapuntua du beti esperientzia hau hasi nahi duen pertsonarentzat. Eta zer hautatzen duen, helmuga, ibilbidea, egonaldia eta sortzen dion bizipena ezberdina izango da. Bidaiak hasiera eta amaiera ditu, baina oroitzapen eta esperientziak bertan murgildutako pertsonak bizitza osorako markatuta utz ditzake.

ABIAPUNTU ZUZENA IDENTIFIKATU ETA BALORATZEA

Gure bidaiaren abiapuntua aztertzen hasten garenean, **baliteke PARTE-HARTZEAREN** herrialdearen ikuspegi benetan berezia duten bidaiariak eta/edo balizko laguntzaileak topatzea. Orain arte, PARTE-HARTZEAREN herrialderako hurbilketa eta espedizio asko **gizarte** zibila zerbitzuen erabiltzaile huts

gisa hartuta egin dira. Edota, bestela, hartu beharreko **erabaki politikoan edo horren mami edo forman eragiteko aukerarik gabe** antolatu dira bidaiak.

Errealitate hori onartuta, azterketa osatu behar dugu egoeraren eta esparruaren ezagutza-maila zein

abiapuntua zehazteko orduan balioa guztien ezagutza-maila kontuan eman ahal diguten informazio-iturri hartuta.

EGOERA- ETA ERAGIN-AZTERKETA BAT BEHAR DA

Egoera- eta lurralde-esparru kokapenaren ikuspegia ere kontuan **zuzen bat egin beharra dago, bai** hartzeko: diagnostiko-esparru bat **estrategia bai eragiketa oinarri** eraikitzea, egoera identifikatzea, **hartuta,** era horretan prozesuari egoera aztertzea eta proposamenak ekitean testuingurua, ideologia, egitea: eragiketa ez ezik, emaitzaren eta

- Gure abiapuntuaren **errealitatea** bere testuinguruan **zehaztea.**
- Dauden **antzeko egoerak** identifikatu eta aztertzea.
- Hobetzeko ezaugarri gisa adierazten diren **sintomak ezagutu eta ebaluatzea.**
- Egoera zer **kausaren** ondorioz sortzen ari den **aztertzea.**
- **Iragarpena** egoerari eutsiz gero.
- Egoerari heltzeko **estrategien hurbilketa.**
- **Ondorioak eta horien garrantzia ikusaraztea** hurbilketa eraginkorra eginda.

DISEINUA DOKUMENTAZIOA

ABIAPUNTUA AZTERTZEA



BIDAIATU AURRETIK JAKINARAZI BEHAR DIRA INPAKTUA ETA IRISMENA

Era berean, bidaiari guztiek **aldeztu aurretik zehaztu behar dituzte lortu nahi diren parte-hartze mailak**, eta zehaztu behar dute, halaber, **zer gizarte-eragilek parte hartzen duten, eta zer instantzian zein zer parte-hartze mailarekin egiten duten.**

Gizarte zibilak gurekin bidaiatu nahi izateko, eta sinetsita eta motibatuta egin dezan, oso garrantzitsua da nora goazen eta zer bisitatu behar dugun ez ezik, **bidaiaren parte-hartze maila bere erakundearen bizi behar duten erakundearen irismena eta etxera itzuli ondoren haien inguruneetan zer eragin izango duen.**

Hori horrela, **irismena eta inplikazio-maila hasieratik behar bezala jakinaraziz gero**, parte-hartzaile bakoitzak bere balio-ekarpena egin ahal izango du, eta horri esker bidaiaren izan litezkeen gaizki-urrituak eta egoera deserosoak urrituko dira:

- **Hartzea:** Herritarrek proposamenaren hartzaileak dira.
- **Hautatzea:** Herritarrek dauden proposamenen artean aukeratzen dute.
- **Informatzea:** Prozesuaren une garrantzitsuetan informatu beharra dago.
- **Kontsulta:** Herritarrei proposamenaren kontsulta egiten zaie.
- **Ordezkaritzako kogestioa:** Gizarte zibiletik esku hartzen duten kolektiboen ordezkarien parte-hartzea.
- **Partaidetzako kogestioa:** Esku-hartzen duten agenteen parte-hartze irekia.
- **Autokudeaketa:** Gizarte zibilaren autokudeaketa.



SISTEMA ALDATZEKO BIDEAK

Abiapuntuko azterketa eta aldagaiak definitzea funtsezkoa da berrikuntza soziala eta parte-hartzea nola, noiz eta zer baldintzatan egin zehazteko.

http://itemsweb.esade.es/wi/research/iis/publicacions/2013-04_Antenna-cast.pdf

DISEINUA IPARRORRATZA

HELBURUAK ETA AZPIHELBURUAK DEFINITZEA

Helburuak panelizatuta eta egituratuta daude eskala, lehenetasun, denbora, ardatz, lerro eta abarren arabera?

Elementu nagusiak, beren osagaiak eta ñabardurak argi zehaztuta?

Zorroztasun tekniko jarraitu eta ebaluatzeak adierazle eta irizpideei konektatuta?

Bidaia helmuga batera iristeko ez ezik, bideaz gozatzeko ere egiten da. Zer toki, mugarri, txoko deskubritu nahi ditugun aukeratu behar dugu. Horietara iristen joatean bide onetik goazela ikusiko dugu, hautatutako bidetik, alegia.

HELBURUAK DIRA PROZESUAREN GIDA

Eraldaketa soziala funtsezko helburua da, besteak beste, herritarren parte-hartzeko prozesu bat bultzatzeko orduan. **Ez da bidaiaren helburu bakarra, ordea.**

Helburuek zer egin nahi dugun, helmuga eta iritsi nahi ditugun bideak deskribatzen dituzte. Bilatutako emaitza eta ondorioei, ibili beharreko

mugarriei dagozkie. Bidaiaren plangintza, inplementazio edo ebaluazioan arreta garrantzitsuena den horretan jartzen laguntzen dute helburuek. Egindako ekintzak justifikatzen eta testuinguru orokorrako batean berriro jartzen laguntzen dute.

Parte hartzeko politiken garapenean

zer eragin duten egoki ikusteko, **mekanismoak eta prozedurak ebaluatzea, eta horretarako parte hartzeko jarduketak, helburuak ongi definitu behar dira.**

HELBURUAK FILTRATZEAK LORTZEA AHALBIDETZEN DU


Prozesuen arazo nagusietako bat helburuak gaizki formulatuta egotea da. Sarritan asmo handiegiko helburuak edo anbiguoak direnak jartzen dira, edo horiek ez daude zehaztuta; horrenbestez, funtsa eta izateko arrazoia galtzen dute.

- **Espezifikoa:** definizioan funtsezkoa da ahalik eta gehien zehaztea; baliagarriagoa izan daiteke, beraz, prozesua zehazteko eta helburu nagusia indartzeko azpihelburuak planteatzea.
- **Neurgarria:** etengabe hobetzeko prozesuen faktore garrantzitsuenetako bat da hori. Helburuak neurketa-irizpide egingarriak bete behar ditu.
- **Lorgarria:** helburuak herritarren eta ingurunearen errealitatera egokitu behar dira; hau da, erronka egin behar dute baina oso errealistak ez diren itxaropenak sortu gabe. Oraingo egoera eta abiapuntua onartu beharra dago; indarrak ezagutu eta nabarmendu behar ditugu, baita mugak ere.
- **Errealista:** helburua emaitzetara orientatuta egon behar da. Helburua, beti, lortu nahi dugun emaitzaren arabera planteatu behar dugu, eta modu positibo batez beti.
- **Denbora:** eta azkenik, xede horrek egiteko une bat eduki behar du, etorkizun batean eta eszenario desiragarri batean. Erabakitako denbora hori motibatzailea ere izan behar da.



DISEINUA IPARRORRATZA


HELBURUAK ETA
AZPIHELBURUAK DEFINITZEA



HELBURUAK FILTRATZEAK LORTZEA AHALBIDETZEN DU

Eta ez dugu ahaztu behar helburuak zehazteko orduan **azken helburuak zein prozesuarenak finkatu** behar ditugula:

- **Helburuak maila guztietan finkatu** behar ditugu: horrela jarduerak testuinguruan kokatzen dira eta helburu orokorrekiko lotura egiten da.
- **Helburuak xede-hartzaileekin, baliabideekin eta jarduerekin harmonizatu** behar ditugu.



CONET S GUIDE TO SOCIAL COHESION

Ikaskuntza-prozesuek, gizarte-kohesioari lotuta oraingoan, parte-hartzearen bidezko sustapen eta inklusiorako bide-orría markatzen dute. Gida honen 7 ardatzak gizarteratzeko prozesuak gida ditzakeen iparrorratza izan daitezke.

<http://urbact.eu/final-results-conets-guide-social-cohesion>

DISEINUA MAPAK

PLANGINTZA ETA GARAPEN-FASEAK

Ibilbide-proiektuaren sekuentziak, mugarriak, etapak... marraztu al dira?

Ibilbide operatiboaren une jakin batzuetan kontrol-ekintzak ezarri al dira?

Berreguneratzeko aparatua eraiki al da Prozesua zirkunstantziei eta garapenaren egoerari egokitzeko?

Mapak bidaiarako funtsezko tresna bat dira. Azaleraren eta bide eta ibilbideen irudikapena dira, eta lokalizatu eta orientatzeko ezinbesteko bidea dira. Ez duzue ahaztu behar mapak irakurri eta interpretatu behar direla informazioa eman diezazueten.

PARTE-HARTZEAK GERO ETA KUDEAKETA ESPEZIALIZATUAGOA ESKATZEN DU

Herritarren garapena hobetzeko diseinatutako ekimen eta proiektu berriek gero eta **kudeaketa espezializatuagoa** eskatzen dute, era horretan **erabakiak azkar hartzeaz gain gertaerei aurrea hartzeko gaitasuna** ere bermatu ahal izateko.

Bidaiari ekin aurretik, eta helmugaren norabidea argi edukita, oso **garrantzitsua da plangintza ona egitea** prozesuak barne har ditzakeen akordio politikoa eta sakontasun-maila balidatu ondoren.

PROZESUA HAINBAT FASETAN GARATZEN DA

Diagnostikoa egin eta helburuak finkatu ondoren, horiek abian jartzeko ituna eta konpromisoa egin behar dira. **Prozesu parte-hartzaile batek honako fase hauek eduki behar ditu:**

- **Informazio-fasea:** parte-hartzea izan dezakeen prozesu eta proiektuaren zabalpena.
- **Eztabaida-fasea:** herritarren eztabaidarako esparrua, diagnostikoa eta jarduteko proposamenak errazten eta ahalbidetzen dituzten metodologiek bultzatuta.
- **Itzulketa-fasea:** emaitzaren itzulketa eta prozesuaren ondorioak.
- **Gauzatzeko fasea:** neurriak inplementatu eta garatzeko akordioak egiteko konpromisoa hartzen dira.
- **Berrikusteko fasea:** prozesua eta inpaktuak.
- **Ebaluatzeko fasea:** betetze-maila eta gauzatutakoaren egoera ebaluatzeko.

DISEINUA MAPAK

PLANGINTZA ETA
GARAPEN-FASEAK



PLANGINTZAK ERANTZUN ARGIAK EMAN BEHAR DITU

Prozesu parte-hartzaile baten plangintzak bidaiaren funtsa definitu eta argitu behar du, bai eta horri erantzuna eman ere, gidoi edo egitura jakin bat erabiltzetik harago.

- **Zer da prozesua?** Analisiak eta ekarpenak zer gai zehatz, politika edo zerbitzuren gainean garatuko ditugun zehaztu beharra dago.
- **Nork parte hartzen du prozesuan?** Ordezkarri publiko eta teknikoek eginkizunak zein bestelako eragile sozialenak (bai antolatuak bai banakoak) zehaztu beharra dago.
- **Nola izango da prozesua?** Prozesua arautuko duten arauak eta parte hartzeko espazioak eta bideak kudeatzeko inplementatu beharreko tresnak eta teknikak zehaztu behar dira.
- **Noiz izango da prozesua?** Denbora ondare preziatuenetako bat da, eta inoiz itzultzen ez diren gauza urrietako bat. Prozesuak kronograma argi batekin zehaztu eta identifikatuta egon behar dira denboran.
- **Zer emaitza espero dugu?** Emaitza zehaztu eta prozesuaren inpaktuak eta aldaketak zein herritarrengan izandako eragina identifikatu behar dira.
- **Zein dira prozesuaren erantzukizunak?** Prozesuaren emaitzak erabakiak hartzeko eta abian jartzeko prozesuan nola gehitu zehaztu beharra dago.



GENIUS OPEN ORIGINAL PROCESS MAP

Tallinn, Donostia, York eta Sirakusa hirien arteko proiektuaren ondoriozko prozesurako mapak parte-hartzearen bidaian murgiltzeko metodologia dira.

<http://urbact.eu/files/genius-open-original-process-map>

http://urbact.eu/sites/default/files/genius_poster_v3.pdf

DISEINUA MOTXILA – EKIPAJEA

INPLEMENTATZEKO ESTRATEGIA METODOLOGIKOA

Metodologiaren erakargarritasun, originaltasun eta freskotasuna: jarduketak, ekimenak, jarduerak, proposamenak...?

Erabilitako tresnen eta erreminten eraginkortasuna?

Prozesuaren dinamizazioa eduki eta formatuari dagokionez?

Noizbait bidaiatu duen pertsona orok jakin badaki ekipajea zehatz-mehatz eta ongi antolatu behar duela helmuga onenetara iristeko. Gehiegizko pisua saihestea, gure ekipajea erraz eramatekoa izatea eta sartzen ditugun elementuak egunerokoari errazago egokitzeko baliagarri izatea ezinbestekoa da bidaia arrakastatsua izan dadin.

METODOLOGIA ILUSIOA SORTZEKO MODUKOA ETA ERAKARGARRIA IZAN BEHAR DA

Estrategia metodologikoa, eta ondorioz **metodologia parte-hartzaileak, ilusioa sortzeko modukoak eta erakargarriak izateaz gain, ulertzen errazak eta horiek garatzeko erabilgarri dauden baliabide eta denboren arabera** ere izan behar dira. Proposamen estrategikoa oso-osoan izanik ere, argi eduki behar dugu ez dugula herritarrek beren gain hartu ezin duten bidaia bihurtu behar;

horrek, izan ere, parte-hartzearen kulturari ez dio ekarpenik egiten hurrengo aldiei begira eta, gainera, barneko funtzionamendua, erabakiak hartzea zein helmugara finkatutako denboran iristea motelduko luke.

Gure bidaiarako estrategia metodologikoa zehaztu eta sortzeko orduan, ez ditugu alderdi hauek ahaztu behar:

- **Gizarte zibilaren kontzepzio integrala:** ez dugu ahaztu behar gure prozesuaren xedea herritarrak direla eta horiek zatietan direla. Gizartean era askotako ekimenak, baliabideak, arazoak eta aukerak daude, eta proposamen parte-hartzaile batek lotura guztiak zeharka eta modu multifokal batez kontuan hartu eta kudeatu behar ditu.
- **Zuzendaritza politiko eta estrategikoa:** prozesua ezarritako ikuspegiarekiko konpromiso batetik zuzendu behar da. Administrazioaren talde sustatzailea izan behar da estrategia metodologikoaren liderra, eta prozesu osoan horren begirada globala izango du horrek.
- **Parte-hartzea eta gardentasuna:** estrategia orok prozesuan parte hartzen duten eragile sozial, ekonomiko eta kultural guztien inplikazioa bermatu behar du. Parte-hartzea eta gardentasuna oinarri dituzten ekintzak egin eta sareak sustatzeko orduan partekatutako konpromisoaren eta erantzukizunaren arabera izango dira eraginkortasuna eta emaitza.

DISEINUA MOTXILA - EKIPAJEA

INPLEMENTATZEKO ESTRATEGIA
METODOLOGIKOA



PERTSONAK XEDE ETA ERDIGUNE DITUEN METODOLOGIA

Prozesuak lortu nahi duen eraldatzeko helburuarekin (fisikoa, hirigintzakoa, gizakiena, gizartearena...) **bat etorriko da estrategia.**

Metodologiek pertsonak eduki behar dituzte erdigune. Ezin dugu ahaztu aldaketen oinarri eta jatorrian pertsonak daudela.

Pertsonak aldatzen direnean egoerak, espazioak, formak, egiturak, erakundeak eta, jakina, kultura parte-hartzailea aldatzea eta horietan eragitea lortzen dute. Gauza bat agerikoa da: horretarako bidaian parte-hartze aktiboa izan behar dute.

Horregatik, bidaiarako hautatzen ditugun bideak eta ibilbideak egiteko

ezartzen ditugun **metodologiek pertsonen aldaketa erraztu behar dute**, betiere era koherente batez eta kasu guztietan gure helburuak gogoan hartuta.

ALUMBNI SOLIDARII-REN ISTORIOA

Planak inplementatzeko estrategia metodologikoen adibide zehatz eta hurbila. Kasu honetan, motxila ESADEko Gizarte Berrikuntza Institutuko ikasleen beraien esperientziaz betetzen da; ikasleok proiektuen eta metodologiaren protagonista dira, horiek prozesuan ikasitako ikasbidetzat hartuta.

http://itemsweb.esade.es/webalumni/docs/HistSolidari_cast_BF.pdf

DISEINUA BOTIKA-KUTXA

BALIABIDE GIZATAR, MATERIAL ETA EKONOMIKOAK PLANIFIKATZEA

Proiektuari lotutako pertsonen gogobetetze funtzional eta emozionala?

Giza baliabide material eta ekonomikoen kudeaketako irisgarritasun eta erraztasuna?

Denborak, espazioak eta proposamenak parte-hartzaileen beharretara egokitzen dira eta prozesuaren helburuak eta xedea indartzen dituzte?

Bidaia-tu aurretik botika-kutxa prestatzea ezinbestekoa da; gaitz arruntak tratatzeko oinarritzko sendagaiak, lehen laguntzetako artikulua eta bidaian lagun izango ditugunek behar duten beste edozein produktu berezi sartuko ditugu horren barruan.

BALIABIDEAK FUNTSEZKOAK DIRA PROZESURAKO

Zer baliabide daude kolektibo eta segmentu ezberdinetara iristeko eta nahi ditugun helburuak lortzeko? Hauxe esan nahi du zehazki: Nork bete behar du zer zeregin? Zer baliabide material edo zer zerbitzu behar dira? Zenbat balio dute? Nondik datoz dirua eta langileak?

Nola kudeatuko ditugu denborak?

Hauk diragure bidaia diseinatzeko funtsezko baliabideak: baliabide finantzario-ekonomikoak, giza baliabideak eta denboraren aldagaia.

- **Baliabide finantzario-ekonomikoak** eskakizun materialak eta beharrezko zerbitzuak ordaintzeko erabilgarri dauden funtsak dira. Oro har aurrekontuan aurreikusita daude.
- **Giza baliabideak**, funtsean langileek dena delako prozesuari zenbat denbora eskaini ahal dioten. Zenbat pertsona daude aurreikusitako zereginak egiteko eta lan-denboraren zer zati eskaini diezaiekete? Langileen kalifikazioa giza baliabideen beste alderdi bat da. Zer prestakuntza eta esperientzia dago planifikatu, inplementatu eta ebaluatzeko zereginak egiteko? Zein dira gainbegiratzeko beharrak? Guztion konpromisoa izan dezakegu?
- **Baliabide teknikoak eta metodologikoak.** Parte hartuz ikasten da parte hartzen, eta ikasteko prozesu horretan hainbat tresna, teknika, metodo... lagungarri zaizkigu ekarpena egiteko prest dauden pertsona horiei onena atera diezaiegun.
- **Denboraren aldagaia:** Denborak behar bezala kudeatuz gero, parte-hartzeak ekintza politikoa atzera ez dezan lortuko dugu.

BALIABIDE EGOKIAK EDUKITZEAK INPAKTUA SORTZEN DU

Beharrezkoak diren baliabideak edukitzea ezinbestekoa da. Horiak eduki gabe bidaia ez da helmuga onerairitsiko, eta bide erdiangelditzea ez bidaiatzea baino arriskutsuagoa izan daiteke. **Egin ahal izango dugun bidaia eta jarduera motan eragina izango dute erabilgarri ditugun baliabideen izaerak eta kopuruak.**

Baliabideek eragin handia ere badute hartzailerekin izan dezakegun harreman-mailan eta helburuen lorpenean. Hori dela eta, garrantzitsua da baliabideak helburu, hartzaille eta jarduera zein tresna eta metodologiek harmonizatzea.



DISEINUA BOTIKA-KUTXA

BALIABIDE GIZATAR, MATERIAL ETA
EKONOMIKOAK PLANIFIKATZEA

BALIABIDEAK FUNTSEZKOAK DIRA PROZESURAKO

Baldin eta baliabideak bidaiara egokitzen badira, oso ongi, **nahikoak ez badira, honako alderdi hauek har ditzakezue kontuan:**

- **Sormena landu dauden baliabideak erabiltzeko garaian:** ekintza estrategikoak giza baliabide eta denbora gutxiagoz erabiltzerik dagoen azter ezazue. Horrenbeste baliabide erabili gabe antzeko emaitzak izan ditzaketen bestelako metodologiak edo bideak egon daitezke.
- **Baliabide bat aski ez denean, hutsune hori orekatzeko, beste baliabide bat erabil ezazue:** funts nahikoak egon arren giza baliabide aski ez badago, zeregin batzuk kanpora aterako dira. Alderantziz, baliabide finantzario urri baina giza baliabide asko ditugunean, zereginak barnean gehiago egitea azter daiteke. Azken aukera hori zer neurritan den errealista ongi ebaluatu beharra dago, barnean zer esperientzia- eta konpromiso-maila dagoen kontuan hartuta.
- **Partekatu baliabideak eta bilatu sinergiak:** askotan ez da beharrezkoa baliabide ugari erabiltzea; egokiagoa izan liteke baliabideak partekatu ahal ditugun eragileak eta kolaboratzaileak bilatzea, eta beste berri batzuk lortzeko sinergiak sortzea.
- **Lehentasunak ezarri: erabilgarri** ditugun baliabideak gorabehera, ezinezkoa da dena aldi berean egin eta erdiestea. Eta baliabideak egin beharko genukeena egiteko aski ez badira ere, lehentasunezko jarduerak, hartzaileak eta helburuak aukeratu behar ditugu.



- **Mugak onartu:** prozesu parte-hartzailean bideratutako baliabideak mugatuak izan daitezke, beste edozein jardueraren egiteko daudenak bezalaxe. Baliabideak direla eta ezin badugu pentsatutako guztia egin, hori esplizituki aitortu eta ondorioak onartu behar ditugu: jarduerak, harremanetan jarri beharreko publikoak zein lortu beharreko helburu kopurua mugatuko ditugu, beraz.

PARTE-HARTZEAREN KORAPILOAK

Beti ez da guztia ongi ateratzen; hortaz, lehen laguntzetako kit bat prest eduki behar dugu herritarren parte-hartzerako prozesuetan maiz sortzen diren arazoak bildu ahal izateko.

<http://www.innobasque.com/home.aspx?tabid=1058&idElementoBiblioteca=210>

Eta PARTE-HARTZEAREN herrialdera bidaiatzeko ordua iritsi da. Bidaian lagun izango dituzunak azkenean prest daudenean emozio-maila oso handia egoten da; giroak abenturara bultzatzen du, bai eta arriskuren bat onartzerarekin, eta bidaia are bereziago bilakatzen da. Egun ahaztezin bihurtuko diren bideak eta ibilbideak egiteko unea iritsi da jada, eta guztia zuen aurrekontua kontrolpean egongo delako konfiantzaz.

Kontuan harezazue zuen esperientziak oso ezberdinak izango direla, bereziki ustekabeko geldialdiak badaude; ongi ireki begiak, bidaian lagun dituzuen pertsona horien alderdi ezezagunak ikusi ahal izango baitituzue, eta aspaldi ikusi gabeko beste batzuek fidelizatzeko edo horiekin berriro konektatzeko modu bat ere bada, ziur.

HEDAPENA

ELIKADURA: Gustuak, sasoiko elikagaiak, eskualde bakoitzeko espezialitateak kontuan hartzea

OSTATUA: Egituren eta erakundeen tipologia

GARRAIOA: Mugikortasuna, egokigarritasuna eta jasangarritasuna

INTERESEKO LEKUAK – ARKITEKTURA: Erreferentziak eta balio erantsiko espazioak

ARTEA ETA ARTISAUTZA (OPARIAK): Esker onak prozesuan

ORDUTEGIAK: Denborak, uneak eta iraupena

KLIMATOLOGIA: Zoritxarrak eta kontrolatu ezin diren inpaktuak

METODOLOGIAK: METODOLOGIAK AZTERTU NAHI DITUZU ZEURE BIDAIA RAKO?

HEDAPENA ELIKADURA

**GUSTUAK, SASOIKO ELIKAGAIAK,
ESKUALDE BAKOITZEKO
ESPEZIALITATEAK KONTUAN
HARTZEA**

***Zer aukera eskaintzen ditu tokiko, lurraldeko...
herritarren agendak proiektua bultzatzeko?***

***Gaur egungo zer gertakarik indartzen edo
bultzatzen dute?***

***Proiektua kokaturik dagoen eremuko, herriko,
lurraldeko... berezko nortasun-elementuak
batzen al ditu?***

*Bestelako ohiturak dituen
herrialde batera bidaiatzen
dugunean ohikoa izaten
da gure gustua ohituta ez
dagoen janariak aurkitzea.
Zapore eta jaki berriak
deskubritzeko aukera ezin
hobea da.*

NORTASUNAREN FUNTSAK BALIOA EMATEN DIO PROZESUARI

Gure bidaia abian jartzeko orduan, oso baliagarria izan daiteke ibili beharreko lurraldeko eta tokietako agenda sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta politikoak ezagutzea.

Aipatutako agenda horiez zein gure prozesuari balio-ekarpena egin diezaioketen kanpoko gertaerez baliatzeko gaitasuna eta praktikotasuna garatu behar ditugu.

Eta ez ditugu ahaztu behar **eremu bakoitzeko berezko eta funtsezko elementuak eta osagaiak**. Bidaia nortasun-ezaugarri horietara egokitze modukoa izan behar

da, behar bezala gizarteratzea eta biztanleak inplikatzeko bermatzearen.

ELKARTEEK HERRITARREN PARTE-HARTZEAN ZER EGINKIZUN DUTEN

Parte-hartzea eraikitzea zaila da elkarteek horrelako prozesuen kanal modura gehitzen duten osagaia eduki gabe.

http://www.oidp.net/fileadmin/documents/GT/associacions/Documento_Final_GT.pdf

SOCIAL INNOVATION IN CITIES

Hiriek eta tokiko administrazioek parte-hartzearen eta jasangarritasunaren erronkari aurre egiten diote: eskualdeko eta estatuko eremutik eskumen berriak jasotzen dituzte krisi-agertoki batean. Herritarrek, berriz, eguneroko arazoak konpontzeko ekimenak gauzatzen ari dira. Hiriak, horrenbestez, espazio-esparru oso zehatz bat dira eta parte-hartzerako berariazko errezeta behar dute.

http://urbact.eu/sites/default/files/03_socialinn-web.pdf

HEDAPENA OSTATUA

EGITUREN ETA ERAKUNDEEN TIPOLOGIA

Proiektuari lotutako pertsona bakoitzaren behar eta ezaugarriak errespetatu eta horietara egokitu beharra al dago? Nola?

Parte hartzen duten kolektiboen eta lokalen profilak identifikatzen al ditu? Jatorriak, generoa, adina, motibazioak, jarrerak eta gaitasunak?

Horien integrazioa laguntzeko neurriak eta baliabideak ezartzen ditu?

Hamaika modu daude bidaiatzen dugunean ostatua bila dezagun. Zer bidaia mota egiten duzuen, tipologia ezberdinetako tokiak aurkituko dituzue, zuen lehentasunak direnak direla. Hori bat: egonaldi eroso bermatu.

PROZESU PARTEKATUA, BATERA SORTUA ETA EGOKITUA

Hainbat pertsonak partekatu eta batera sortu behar dute bidaia hori; pertsona horiek, orobat, toki ezberdinetatik ez ezik, familia-egoera, lanbide-esparru zein sektore ekonomiko, sozial eta kultural ezberdinetatik ere badatoz.

Parte-hartzaileen kolektibo eta sektore ezberdinak identifikatu ahal izateko tresnak eduki behar ditugu, eta beharrezko diren mekanismoak aktibatu behar ditugu horiek guztiak, errespetua eta tolerantzia oinarri hartuta, txertatzeko.

P4C

Placemaking deritzonak zera deskribatzen du: lehendik dauden edo berriak diren espazio publikoak, konexio emozionala sortzen dutenak, aktibatze prozesu kontziente eta berariazkoa.

<http://urbact.eu/placemaking-cities>

HEDAPENA GARRAIOA

MUGIKORTASUNA, EGOKIGARRITASUNA ETA JASANGARRITASUNA

Parte-hartzaileen aniztasun funtzionalari kasu egiten dio irisgarritasuna bermatuta? Bertaratzeak lekualdaketen ondorioz sortutako kostuak finantzatzen ditu?

Bertaratzen laguntzen du garraiobide publikoak erabiliz?

MUGIKORTASUNA ETA EGOKIGARRITASUNA PROZESUA JASANGARRIA IZATEKO ARRAKASTA-FAKTOREAK

Bidaiaaren mugikortasuna eta jasangarritasuna aurreikusiko baditugu, hainbat tresna kontuan hartu beharko ditugu agenteek, lekualdaketen kostuak gorabehera, parte har dezaten erraztu eta bermatu ahal izateko.

Mugikortasunak sortzen ditu bidaietako arazo nagusietako asko. Eta horiek ez dira komunikazio txarra edo irisgarritasunik eza soilik, garraioek sortzen dituzten ingurumen- eta gizarte-inpaktuez ere ari baikara. Zuen bidaian garraioak ongi aukeratzeak laguntzen zaituzteten pertsonak pozik egotea bermatuko du.

Eta horrekin ez gara lekualdaketa luzeek bakarrik ari, dibertsitate funtzionaleko egoeran dagoen edo mugitzeko aski baliabide ez dituen **pertsona orok zuzenean parte har dezan bermatzeko laguntza eman eta sustatu beharra baitago.**

Mugikortasuna kontuan hartuta parte-hartzea areagotzen da, eta horrek prozesua ahalik eta jasangarria izan dadin ekarriko du.

Online (ez zuzenean) **parte hartzeak pertsona kopuru are handiagoaren partaidetza ekartzeaz gain**, zuzeneko formatura egokitze arazoak (ordutegiak, distantziak... direla eta) dituzten pertsonen prozesua hurbil diezaieke. Online parte hartzeak, dena den,

mugak ere izan ditzake zenbaitetan, besteak beste, ohiturarik ezagatik edo erabiltzaileek horretarako tresnak ezagutzen ez dituztelako. Era horretako parte-hartzea **estrategia integral batetik jorratu beharra dago**, ekarpenak banakoen batura izan beharrean egiazko sorkuntza kolektiboa izan dadin helburutzat hartuta.

NETIMPACT

Parte-hartzeari dagokionez mugikortasuna eta aldaketa kontuan hartu beharreko gaiak dira. Aldatzeko edozein ekimen iraunkorra izan daiteke, eta eragin handia ere izan dezake, pertsonen berau bultzatzen badute eta horretan entusiasmoz inplikatzeko badira.

<https://netimpact.org/>

HEDAPENA INTERESEKO LEKUAK – ARKITEKTURA

BALIO ERANTSIKO ERREFERENTZIAK ETA ESPAZIOAK

*Proiektua konektatuta dago ezartzen ari diren
beste batzuekin eta lurraldean aurretik izan ziren
bestelako esperientziekin?*

*Askotariko espazioak erabiltzen ditu lurraldeko
ekipamendu eta zentroekin elkartzeko?*

*Ekimenen aniztasuna (hirugarren sektorea,
publikoa, enpresena...) onartzen du horiei lotutako
esparruetan fisikoki kokatuz?*

Lurrotan denboran
zeharreko bidaia
eginez gero, obra
garrantzitsuenetako batzuk
inauguratu zituzten unera
itzul gaitezke, eta horrez
gain, balioz betetako artea
eta eraikuntzak bat egin
arte elkarrengana hurbildu
diren espazioen bilakaera
ere azter dezakegu.

AITORTUTA DAUDEN ETA BALIOA DUTEN ESPERIENTZIETATIK IKASTEA

Gida osoan ikusi dugu oso garrantzitsua dela ulertzea **parte-hartzea ez dela gainontzekoetatik isolatutako prozesu bat**, eta bateraezintasunak edo bikoiztasunak bilatu ordez, horien **aukera eta balioei egin behar diegula kasu**.

Gure bidaiari ekin aurretik, **lokalizatu eta ezagutu behar ditugu lehendik garatutako bestelako ezarpen-esperientzia batzuk**; horri esker, esperientziok erreferentzia gisa erabili ahal izango ditugu, eta

horietatik ikasitakoa gure bidaian gehitu ahal izango dugu.

Bisitatu beharreko lokalizazioak, tokiak eta espazioak aukeratzeko orduan, halaber, baliagarri ere izan zaizkigu. Horien aniztasuna, trazabilitatea eta balio-karga direla eta aukeratzeko gauza garen neurrian, PARTE-HARTZEAREN herrialdera behar bezala hurbiltzeko atmosfera ezin hobea sortuko dugu.

JARDUNBIDE EGOKIEN SARIAK

Beste pertsona batzuek lehenago eta ongi egun dutena erreferentzia da aurrerantz arrakasta-garantiaz eraikitzeko. Jardunbide egokiak erreplikatzeko aukerak balio erantsia emango dio etorkizunean abian jartzen dugunari.

<http://www.oidp.net/es/centro-de-recursos/biblioteca-oidp/distincion-oidp-buena-practica-en-participacion-ciudadana/>

HEDAPENA ARTEA ETA ARTISAUTZA (OPARIAK)

ESKER ONAK PROZESUAN

Zer keinu edo ekintzak bultzatzen dute pertsonen parte-hartzea proiektuaren hasieran?

Proiektuak nola nabarmentzen du parte-hartzaileen balioa une ezberdinetan?

Nola aitortu eta eskertzen du egindako lana? Eta lotutako pertsonak?

Zuen bidaiaren arrazoia edozein izanik ere, beti egoten da denbora erosketa batzuk egiteko. Zuen gustuak direnak direla, beti aurkituko duzue oparitxoren bat, dela zuen eskerrona adierazteko, dela maletan oroigarri eramateko.

PERTSONAK AITORTZEAK INPLIKAZIOA HANDITZEN DU

Jakin badakigu parte hartzen duten pertsonak ez dutela hori egiten bidaia paregabe bateko agente aktiboa izatea ez beste sariren bila. Bidaiak politika edo zerbitzu baten gainean eragitea du helburutzat; horrelakoek pertsonen bizi-kalitatea hobetu dezakete edo balioa eman diezaiokeste interesatuta dauden horri.

Baina horrek ez du esan nahi bidaian zehar **pertsonen inplikazioa eta ekarpenak baloratu ahal izateko keinuak eta ekintzak antolatu eta aztertu** behar ez ditugunik.

Aitortu eta esker ona emateko neurriek, **fidelizazioaz gain, gizartean parte-hartzearen kultura eraikitzen laguntzen dute**, baita bidaia giro onean egiten ere. Bidaian lagun izan ditugun **pertsonen inplikazioa aitortzeko modu ugari daude**: prozesuan eraikitako produktuetan haien izenak agertzea, jendaurrean aurkezteko ekitaldietara gonbidatzea, lortutako produktuak batera aurkezte, laguntzen gaituzten eragileen egoitzetan topaketak deszentralizatzea, eta abar. Ez ahaztu hori egiten.

THE QUEST FOR PRECISION

Berrikuntza-antenek azken joerei buruzko ikuspegi panoramikoak eskaintzen dituzte, eta beste egoera batzuetan aplikatzeko moduko adibide arrakastatsuak erakusten dituzte.

http://www.esade.edu/research-webs/esp/socialinnovation/publicaciones/Social_innovation_models



HEDAPENA ORDUTEGIAK

DENBORAK, UNEAK
ETA IRAUPENA

Denboraren faktorea dimentsio guztietan aztertzen du ordutegiak, iraupena, hautatutako datak, maiztasuna, asistentzia- eta parte-hartze mugak... ezartzeko orduan?

Erabilitako denborak eraginkortasun eta efizientzia funtzional eta emozionalari dagokionez kontrolatzen ditu?

Planifikatua, lan-agenda eztabaidatzen du taldearen eta osatzen duten pertsonen erritmoen arabera?

Bidaian denbora ongi kudeatzen badugu, parte-hartzaileok ez gara larrituko bisitatu beharreko tokiak ahalik eta hoberen aprobetxatu ahal izateko askotan jartzen dugun abiadura bizkorragatik. Bidaia arrakastatsua izan dadin, funtsezkoa da espazio bakoitzari behar diren denborak eskaintzea, lekualdaketak tarte handiz planifikatzea eta hitzartutako mugarriak betetzea.

DENBOREN KUDEAKETA PROZESUAREN ZERBITZURA

Bidaiatzeko eta planifikatutako ibilbideak betetzen joateko orduan funtsezko beste faktore bat da **denborak eta horren momentuak zuzen eta eraginkortasunez kudeatzea.**

Ezinbestekoa da plangintza, lan-agenda eta aurretik diseinuan erabakitako guztia denborak bere garapenean eskatutako erritmo

eta dimentsioetara egokitzea (ordutegiak, maiztasuna, datak...).

Denbora behar bezala kudeatzea lagungarria izango da esku hartzen duten **eragile guztiek parte har dezaten bermatzeko, eta horrekin bidaia eraginkor eta efizientetzat har dadin.**

STARTUP WEEKEEND

Prozesuaren denbora... Startup weekend deritzonak, asteburu batean, parte-hartzea eta komunikazioa sustatzea ahalbidetzen du, eta horri esker tokiko komunitatean eragiten du.

<http://startupweekend.org/organizer/organizers-guide/organizer-toolkit-sp/>

HEDAPENA KLIMATOLOGIA

ZORITXARRAK ETA KONTROLATU
EZIN DIREN INPAKTUAK

Ba al du tresnarik zailtasunak, oztopoak, mehatxuak, krisiak eta ahuleziak denbora errealean behatu eta aztertzeko?

Protokolizatzen al ditu proiektuaren garapena eta arrakasta mugatzen dituzten egoera zailei nola heldu?

Entrenatuta al dago talde sustatzailea gidatzean aurkitutako ezuste eta oztopoak protokoloaren arabera konpontzeko?

Askotarikoak dira bidaian topa ditzakegun fenomeno meteorologikoak: tenperatura-aldaketak, euria, hezetasuna, hodeiak, presioa, haizea, eta abar. Elementu horiek direla eta, bisitatu beharreko toki berak inpaktu eta sentazio ezberdina sor diezaioke pertsona bakoitzari.

ZORITXARRERAKO ENTRENAMENDUARI ESKER ERANTZUN BATERATU ETA ERAGINKORRA EMAN DAITEKE

Bidaian aurki ditzakegun arrisku eta zoritxarrak planifikatzeko orduan identifikatzen saiatu gara aurreko ataletan. Zoritxarrez, baina, alderdi askok gure prebentzio-gaitasunari ihes egiten diote.

Komeni da beti bidaian **oztopoak denbora errealean behatu eta aztertzeko tresnak edukitzea, era horretan aurrera egin ahal izateko erabakiak har ditzagun.**

Jardun-protokoloak zehaztu behar ditugu egoera horren aurrean zer egin baino gehiago horien aurrean espedizioko kide guztiek nola jokatu bermatzeko.

Agenteak, eta batez ere gure langile tekniko eta politikoak, prozesuko ezbeharren inpaktu negatiboak konpontzeko eta horiei aurrea hartzeko gaitu eta entrenatu behar ditugu.

AURREKONTU PARTE- HARTZAILEEI BURUZKO OHIKO 72 GALDERA

Bidean zalantzak, zoritxarrak, oztopoak... sortzen dira. Ez dago egoera horiek konpontzeko vademecumik, baina bai lagungarri izan daitezkeen hainbat erreferentzia.

<http://unhabitat.org/books/72-respuestas-a-preguntas-frecuentes-sobre-presupuestos-participativos-municipales-espanol/>



METODOLOGIAK AZTERTU NAHI DITUZU ZEURE BIDAIA RAKO?

Parte hartzeko tresna eta metodologia asko daude jasota beste pertsona eta erakunde bidaiazale batzuen dokumentu ugaritan. Guztien helburua bidaia-taldeak dinamizatu eta horiei laguntzea izan da, bai diseinu-fasean eta bai PARTE HARTZEAREN herrialdean murgiltzerakoan.

Horregatik gomendatzen dizuegu zenbait metodologia aztertu eta egokitzea zuen bidaiarentzat ezarri duzun helburua lortzeko. Garbi dago zuen bidean aurkituko dituzuenetako batzuk beren xumetasunagatik nabarmenduko direla; baina aurrean duzun erronka horiek zuen bidelagunengana egokitzeko gaitasuna izatea da, eta horiek martxan jartzean aurki dezakezuen baliora.

Baina ezin dugu ahaztu gure bidaietako askotan ezinbestekoa gertatzen dela laguntza aditua izatea, zenbait unetan, esperientzia falta zaigunean eta gure ezjakintasunak bidaia arriskuan jar dezakeenean, gidatuko gaituena. Gero eta gehiago dira parte hartzeko tresna eta metodologia propioak, berritzaileak eta osagarriak, garatu dituztenak, gure metodologia-kutxan aurkitu ahal izango dituzuen askotan oinarrituak.

Anima zaitzte irakurtzera, beste bidaiari batzuen ikuspegia ezagutzera, zuen bidaiari lagunduko dizueten tresnak identifikatu eta egokitzera, bidaiari adituen laguntza jasotzera eta, zergatik ez, parte hartzeko zeuen metodologia propioak ere sortzera.

OPEN POLICY TOOLKIT

<https://www.gov.uk/guidance/open-policy-making-toolkit>



DEVELOPMENT, IMPACT & YOU. PRACTICAL TOOLS FOR SOCIAL INNOVATION

<http://diytoolkit.org/tools/>

FEANTSA. TOOLKIT ON PARTICIPATION

<http://www.feantsa.org/spip.php?article122&lang=en>



THE PARTICIPATION TOOLKIT - Scottish participation toolkit - HEALTH COUNCIL

http://www.scottishhealthcouncil.org/patient_public_participation/participation_toolkit/the_participation_toolkit.aspx#.VjHyC0tdHcs

CIMAS. HERRITARREN PARTE-HARTZEA LANTZEKO IKASMATERIALA

http://www.redcimas.org/wordpress/wp-content/uploads/2012/10/materiales_didacticos_particiu.pdf

<http://www.book2look.com/book/wAaFoznPtI>



TOTAL PARTICIPATION TECHNIQUES. TEACHING STRATEGIES FOR PARTICIPATION

<http://gssdstudentengagement.wikispaces.com/Teaching+Strategies+for+Participation>

Bide onetik goazela adierazten diguten tresnak eta euskarriak eduki behar ditugu bidean. Norabidea finkatzen edo hurrengo etapak berriro orientatzen lagun diezagukete honako adierazle hauek: mapa ongi jarraitzea, kokapena uneoro behar bezala zehaztea, taldearen gogo-

aldartea aztertzea, besteak beste. Bidaia garapenean zehar aztertu eta ebaluatu ahal izateko tresna batzuk proposatzen dizkizuegu:

EBALUAZIOA ETA IKASKUNTZA

URRATS KONTAGAILUA: Faseen neurketa eta balorazioa

TENSIOMETROA: Prozesuaren tentsioen eta emozioen neurketa eta balorazioa

ARGAZKI-ALBUMA: Prozesuaren une garrantzitsuak, mugarriak eta balio-proposamenak

BIDAIA-KAIERA: Prozesuaren eta ikaskuntzaren kontaketa eta bilketa

MODÉLO DE EVALUACIÓN: NOLA JAKINGO DUZU ZEURE BIDAIA BIDE ONETIK DOAN ETA HELMUGARA IRITSIKO OTE ZAREN EDO EZ?

EBALUAZIOA ETA IKASKUNTZA URRATS-KONTAGAILUA

FASEEN NEURKETA
ETA BALORAZIOA

Kontrastatzen da jardun-balantzea aurreikusitako bide-orriarekin?

Erabilitako baliabideak neurtzen ditu egindako aurreikuspenarekin alderatuta?

Doikuntza-irizpideak proposatzen ditu giza baliabideen, baliabide materialen zein bitarteko ekonomikoen kudeaketa hobetzeko antzeko proiektuak ezartzeari begira?

Urrats-kontagailuaren bidez emandako urratsak, kontsumitutako energia eta egindako bidearen intentsitatea zenbatu ditzakegu. Ulertu behar dugu talde osoa ez dela pauso berean ibiltzen, ezta baldintza beretan ere, eta horren ondorioz pertsona bakoitzak bidaia bera ezberdin bizi izaten du.

EBALUAZIOA IKASI ETA HOBETZEKO DA

Bidaia ebaluatzen gure sistemaren bidez lehenik eta behin jakinarazi behar dugu **ez dela kontrolatzeko prozedura bat, ikasteko eta hobetzeko prozesu bat** baizik.

Ebaluazioaren bitartez hobetu beharreko arloak zehaztu behar ditugu gure bidaiaren norabidea uneoro zuzena dela bermatzeko.

ZERGATIK ETA ZERTARAKO EBALUATU

Hori dela eta, **ezinbestekoa da ebaluazioa behar bezala zehaztu, testuinguruan kokatu eta helaraztea**; horretarako, prozesuan parte hartzen duten agente guztien artean honako galde hauen erantzuna argitu eta gizarteratu behar dugu kasu guztietan:

- **Zertarako ebaluatu?** Prozesuan edozer testuinguru-aldaketa sartu ahal izateko, prozesuak eskatzen duen aldaketa oro garapenean zehar egin ahal izateko, norabideari eutsi eta helburura bideratzeko...
- **Zer ebaluatu?** Prozesuaren kudeaketa, helburuak eta azpihelburuak eskuratu diren, emaitzen neurketa, prozesua berez lortzen joaten den inpaktua...
- **Nork ebaluatzen du?** Ebaluazioan zer agentek parte hartzen duten eta zer alderdiren gainean ebaluatzen duten definitzea: talde eragilea, esku hartzen duten agente eta eragileak, arloko kontseiluak...
- **Nola eta norekin ebaluatzen da?** Erabaki behar dugu zer ebaluazio-irizpide erabili, zer tresna eta erreminta jarriko ditugun erabilgarri fase honetan, zer adierazle eta zer betetze-maila neurtuko diren prozesuari zein azken inpaktuari lotzeko...



EBALUAZIOA ETA IKASKUNTZA URRATS-KONTAGAILUA

FASEEN NEURKETA
ETA BALORAZIOA



Galdera horiei erantzunez sortuko den ebaluazio-espazioan eragile parte-hartzaile guztiek ebaluazioan zer eginkizun betetzen duten barneratuta izango dute eta, horri esker, bidaian zehar, **alderdi**

kualitatiboez gain, horren alderdi emozionalak ere bildu ahal izango dituzte (balantzeak egitea, baliabideak neurtzea, doikuntza-neurriak proposatzea...).



HERRITARREN PERTZEPZIOAK NEURTZEA

Eta ez badu inork parte hartzen? Nola jakin bide onean gauden? Nola neurtu eta sistematizatu ibilbidea, eta ekimenak funtzionatzen duen? Nola baloratzen dituzte herritarrek beraiek ekimenak?

<http://www.femp.es/files/566-264-archivo/GUIA7.pdf>

EBALUAZIOA ETA IKASKUNTZA TENTSIOMETROA

PROZESUAREN TENTSIOTEN ETA EMOZIOEN NEURKETA ETA BALORAZIOA

Identifikatzen ditu proiektuak sortu dituen askotariko emozioak?

Parte-hartzaileekin aztertzen ditu eragindako emozioak hainbat irizpidez horiek estimatu edo egoki baliatzeko?

Arlo honetako entrenamendu-, informazio- eta/edo prestakuntza-ekarpenak egiten ditu?

Bidaia, ikaskuntza gisa, aukera zoragarria da bidaia-orientat. Mapak, oharrak, gidak, planak, irakurgaiak, ametsak... erabiltzearen ondorioz aurrez aurreko emozioen mapaketa sortzen da. Ikaspena eman diezaguketen norberaren eta taldearen emozioak behatzeko eta horiei aurre egiteko testuinguru egoki bihurtzen da bidaia.

EMOZIOAK PROZESUAREN ZERBITZURA

Parte hartzeko planaren alderdi operatiboak eta estrategikoez gain oso garrantzitsua ere **bada bidaian sortzen diren gainerako balorazio emozional guztiak ere neurtzea.**

Hori dela eta, bidaian aurkituko ditugun ibilbide eta tresna ezberdinen oinarri diren emozioak ez ditugu gure kontroletik kanpoko zerbaiz izango balira bezala ulertu behar,

izan litezkeen tentsioen behar bezalako laguntza eta kudeaketa bermatzeko erantzukizun gisa baizik.

PARTE-HARTZEA ERDIGUNEAN DAGO

Giro emozional zuzena bermatzeko, eta horren ebaluazioa garatu ahal izateko, ezinbestekoa da **prozesuaren koherentzia aztertzea**. Zentzu horretan dagoen desoreka orok edo berehala identifikatu gabeko edozein inkongruentziak prozesu osoa arriskuan jartzen duten tentsio handiak sor ditzake.


Bidaian identifikatu behar dituzuen **emozioek**, positiboek zein tentsioak sor ditzaketenez, **honako irizpide hauen inguruko oreka eta desorekekin zerikusia izaten dute:**

- **Egokitasuna:** Egokia izaten ari da bidaia? Prozesuaren zein bere helburuaren eta azken inaktuaren eskariei eta beharrei erantzuna emateko gaitasuna.
- **Eraginkortasuna:** Nahi duguna eraginkortasunez lortzen ari gara? Azpigelburuak eta helburuak ezarritako denboren barruan bete ditugun.
- **Efizientzia:** Erabilera hoberena ematen ari gaitzaizkie bidaia-zerbitzura jarri ditugun baliabideei? Prozesuaren zerbitzura jarritako baliabideen kopurua eta kalitatea ebaluatzea.
- **Neurrien garrantzia edo egokitasuna:** Urrats zuzenak ematen ari al gara gure azken helmuga ahaztu gabe? Etengabe ebaluatzea urrats bakoitza azken helburua lortzeko egokia dela.



EBALUAZIOA ETA IKASKUNTZA TENTSIOMETROA

PROZESUAREN TENTSIONEN ETA
EMOZIOEN NEURKETA ETA BALORAZIOA



- **Eragina:** Zer eragin izaten ari da bidaia bertan parte hartzen dugunongan? Zerbait aldatzen ari da? Neurriek esparru ezberdinetan zer eragin duten egiaztatzen joateko gaitasuna.
- **Bideragarritasun edo iraunkortasuna:** Bideragarria al da bidaia honetan lortu duguna denboran iraunkorra izatea? Lortutako helburuak bideragarritzat eta denboran iraunkortzat hartu ahal izateko bermea.

Laguntzen gaituzten pertsonen inpaktu emozionala eta erreakzioak irizpide horiekin baloratzen baditugu, prozesuak izan daitezkeen giro emozionala eta tentsioak neurtu ahal

izango ditugu, bai eta horien fokua zein den zehaztu ere, horrelakoak **sendotzeko edo bideratzeko**.

HERRITARREN PARTE- HARTZEAREN ADIERAZLEAK

Nola neurtu sintomak eta zantzuak azken diagnostiko ona egiteko? Lagungarri izan dakizkigukeen tresna batzuk...

<http://www.democracialocal.org/participacion/>

<http://www.democracialocal.org/wp-content/uploads/2012/12/Informe-Monitoreo-Presupuesto-Municipal-2014.pdf>

EBALUAZIOA ETA IKASKUNTZA ARGAZKI-ALBUMA

PROZESUAREN UNE
GARRANTZITSUAK, MUGARRIAK ETA
BALIO-PROPOSAMENAK

Egindako ekarpen guztien inbentarioa egiten du horietako asko biltzea bermatuta?

Tresna aurreratuak erabiltzen al ditu proiektuan sortutako ezagutza bildu eta erabiltzeko?

Hainbat profileko euskarriak, dokumentuak, irudiak eta bestelako bitarteko tekniko eta teknologikoak erabiltzen al ditu prozesuaren memoria biltzeko? Zer eginkizun betetzen dute IKTek fase honetan?

Taxuzko bidaia guztiek argazki-albuma izaten dute. Album horretan argazki bikainak sartuko ditugu, baina baita bizi eta esperimentatu dugun horretara behin eta berriz itzultzea ahalbidetzen diguten oroitzapenak ere.

HELBURUA: BERRIKUSI, ZUZENDU ETA BERRIRO BIDERATZEA

Ezarritako **ebaluazio-sistema guztiek** gure bidaiaren **faktoreak berrikustea, zuzentzea eta berriro bideratzea** izan behar dute **helburutzat**, eta horrez gain, esku

hartzen duten agenteek eta eragileek adostuta egiten dituzten ekarpenak horietan nola txertatu ere bai.

Eta horretarako bidaiaren momentu

ezberdinak eta etapa eta ibilbide bakoitzean **egindako ekarpenak**

behar bezala bildu, artxibatu eta aztertu behar ditugu.

BILTZEKO TRESNEK AZTERKETA ERRAZTUKO DUTE

Sortutako ezagutzari buruz eta lortutako akordioei dagokienez sinesgarria den bilketa aurreratua egiteko behar diren tresnak jarri behar ditugu pertsonen eskuragarri, nola bidaia osoaren eduki gordinari, hala ekarpen nabarmenei dagokienez.

Bilketa ongi egiten badugu, **bidaiaren askotariko irakurketak egin ahal izango ditugu, bai dimentsio operatibokoak zein dimentsio**

politiko eta estrategikokoak.

Proposatutako ekintzak eta konpromisoak bete diren egiaztatu ahal izango dugu tresna horien bitartez, **eta prozesua zein lortutako emaitzak aztertzeko informazioa ere eskuratuko dugu**, bereziki herritarren parte-hartzearekin lotuta.

BARAKALDO: ERALDATZEN ARI DIREN EUROPAKO HIRIAK

Gertaera gogoangarrien, une baliotsuen argazkia bidaia honen beste motibazio bat da, eta prozesua bukatutakoan gure burua ezagutzeko itzul gaitezkeen erreferentia ere bada.

<http://www.barakaldo.org/portal/web/planeamiento-y-gestion/plan-de-accion-local>

EBALUAZIOA ETA IKASKUNTZA BIDAIA-KAIERA

PROZESUAREN ETA IKASKUNTZAREN KONTAKETA ETA BILKETA

Denborak jasotzen al ditu funtzionaltasuna, eraginkortasuna, efizientzia, koherentzia, baliagarritasuna, pertsonak barne hartzen dituen, proiektuaren aurrerapena, metodologiak eta abarrak jarraitu eta ebaluatzeko?

Gogoeta egiten al du proiektuak bere garapen-ereduarekin bideratzen dituen balio etikoei buruz?

Praktika oinarri hartuta esperientziari buruz teorizatzen al du gure proiektuetarako hausnarketa eta ondorio baliotsuak lortzeko?

Bidaiatzen duten pertsonen bidaia-kaiera erabiltzen dute ibilbidean aurkitzen duten informazio interesgarri guztia automatikoki biltegiratzeko. Kaiera bat eta arkatx edo pintzel bat, edo edozein tresna digital, dira erarik onena oroimenean bidaia ahaztezina gorde ahal izan dezagun.

BITARTEAN ETA ONDOREN DIMENTSIO GUZTIETAN EBALUATU BEHARRA DAGO

Metodologiari dagokionez komeni da **etengabeko ebaluazioa** aurreikus dezagun prozesuaren helburuak bidaia osoaren ibilbideetan zehar zer neurritan betetzen diren ikusteko.

Horretarako, baina, sistema bat antolatu beharko dugu une ezberdin batzuetan eta ebaluazio-helburu

ezberdinez ebaluatzeko aukera izan dezagun. Interesgarria da, horregatik, batetik, **bidaiarako ebaluazio bat egitea (bitartean eta ondoren)**, eta bestetik, horri esker **lortu dugun inpaktu eta ikaspenerako ere beste bat egitea**

EBALUATZEKO IRIZPIDEEN GARRANTZIA

Ebaluazio eta neurketa hori bermatzeko, halaber, ebaluatzeko, proiektuak kontrolatzeko eta adierazleak egiteko **metodo, irizpide eta tresna ugari daude**. Horiek guztiak aztertzeari ekin ordez, halere, horientzat guztientzat balio duten irizpide soil batzuk aurkeztuko ditugu.

Bidaian zehar prozesuaren etengabeko bilketa egiteko, haren inpaktua balidatu eta baloratu aurretik betiere, honako ekintza hauek kontuan hartu behar dira:

- **Jarduerak arrakastatsuak izan diren egiaztatzea:** Tresnak eraginkorrak izan dira? Hartzaileekin harremanetan jarri ginen aurreikusita zegoen bezala? Aski al ziren baliabideak? Lortu al ziren helburuak?
- Prozesuan zehar, **jarduerak benetan arrakastatsuak izan direla barnean frogatzea**. Garrantzitsua da prozesua plangintzaren eta jardueren arloan indartu eta aitortzeko.



EBALUAZIOA ETA IKASKUNTZA BIDAIA-KAIERA

PROZESUAREN ETA IKASKUNTZAREN
KONTAKETA ETA BILKETA



- **Esperientziatik ikastea.** Emaitzak ebaluatu eta ezagutarazteak jardueretatik ikastea ahalbidetzen du. Jarduerak alderatu eta jardunbide egokienei buruzko erreferentziak ezar ditzakegu. Plangintza eta jarduketa hobetzera bultzatzen du horrek, eta parte hartzeko prozesua sendotu beharrari gehiago erantzuten dion entitate bihurtzen du erreferentziako erakundea.
- **Jarduerak berrantolatzea eta beste berri batzuk sortzea hartutako esperientzia kontuan hartuta.** Etorkizunari begira arrakasta izateko aukerak hobetzen ditu, eta eskaera berriei erantzuteko gaitasuna indartzen du.
- **Hori guztiak jarduerak inplementatu bitartean egin behar da, baita ondoren ere.** Ebaluazioak planifikatzen baditugu jarduera arrakastatsuen jarraipena egin ahal izango dugu eta, beharrezkoa bada, jarduerak inplementatzeko garaian, eta ez horren ostean soilik, aldatu ahal izango ditugu.

ANDALUZIAN HERRITARREN PARTE-HARTZE PROZESUAK INPLEMENTATZEKO GIDA PRAKTIKOA

Adibideen eta esperientzien bitartez hobeto ulertzen dira parte-hartze prozesuak; nolanahi ere, bidaian zehar, arlo kontzeptualetik, gidatzen gaituen tresnaren bat edukitzea komeni ere izaten da.

http://www.famp.es/racs/observatorio/GLOSARIO/GUIA_participacion_ciudadana.pdf

E-PARTAIDETZARAKO JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA

E-partaidetzari buruzko kasuen adibide batzuk oraingoan.

http://eparticipation.eu/wp-content/uploads/2012/10/eCitizeni_manuaal_A4_SPANISH-1.pdf

NOLA JAKINGO DUZU ZEURE BIDAIA BIDE ONETIK DOAN ETA HELMUGARA IRITSIKO OTE ZAREN EDO EZ?

Zuen bidaiaren etengabeko ebaluazioak ez du beste helbururik esperientzia ona bermatzea eta zuen helmuga lortzea baizik. PARTE HARTZEAREN herrialdera hurbilpenak garapen-eta aurkikuntza-fasean daudenez, horien ebaluazioak beharrezkoak dira, lortzen diren ikaskuntzek bidaia berrien bultzadari lagunduko diote-eta.

Baina, gainera, administrazioen bidaiatzeko eran aldaketa lortzeko eta politikak eta zerbitzuak hobetzen laguntzen ari ote zareten jakiteko orduan zuen bidaia eraginkorra den edo ez neurtzeko balioko dizue. Eta, batez ere, administrazioaren eta herritarren arteko konfiantza sendotzen laguntzeko, gero eta natural eta errazagoa izan dadin PARTE HARTZEAREN herrialdera bidaiatzea.

Eta horretarako, bidaia-gida honetaz gain, azken urteetan Eusko Jaurlaritzan herritarren parte-hartzea sustatzeko egindako zenbait esperientzitan oinarriturik, Administrazio Publikoan burutzen diren prozesu parte-hartzaileak ebaluatzeke eredu bat diseinatu dugu zuretzat. Tresna honek jarraibide eta orientabideen esparru batez ere praktikoa eskaintzea bilatzen du, zuen partaidetza-bidaiara egokituriko

ebaluazioa diseinatzeko lagundu dezaten, zeuen helburu, inpaktu eta baliabideen arabera.

Eredu honetan dokumentu bat aurkituko duzue, ebaluatu nahi diren berariazko partaidetza-prozesuak ez ezik, beste zerbait ere planteatzeko duena: bidaia sustatzen duzuenon partaidetza-praktiken multzoan bidaia hauek txertatzeari buruzko gaiak, kudeaketa publikoko tresna gisa sendotzearen alde egin ahal izateko.

Dena den, eta zuen bidaia ebaluatzeke azkenean erabiltzen duzuen formula gorabehera, ezin duzue ahaztu ikasi eta hobetzea dela beti zuen bidaia ebaluatu eta baloratzearen helburua.



**ADMINISTRATIO
PUBLIKOETAN PROZESU
PARTE-HARTZAILEAK
EBALUATZEKO EREDUA**

www.euskadi.eus/guia_participación/modelo_evaluación/

BIDAIAREN OSTEAN

Etxera itzulitakoan, poz-pozik gogoratuko ditugu bidaian zehar bizi izan ditugun une ahaztezinak. Oroitzapen batzuk gozatzekoak dira, irribarrea eragingo digute beste batzuek, eta, modu batera edo bestera, bizi izan ditugun gertakari ez horren atsegin horiek ere gure oroimenean atxikiko ditugu eta aberasgarri izango zaizkigu.

Gure itxaropenak bete diren ikusi behar dugu bidaia arrakastatsua izan den jakiteko. Baliteke espero genuena baino hobe izatea edota, itxaropen handiegiak genituenetz, horiek guztiz

bete ez izana.

Bidaian zehar bizitakoa eta horretatik ateratako ikaspena denboran eta gure jatorrian irauteko modukoa dela bermatu behar dugu, bai eta, horrez gain, beste pertsona askok ere horri onura atera diezaioketela ere.

Zuen bidaiaren inpaktua eta emaitza aztertu ahal izateko tresna batzuk proposatu nahi dizkizuegu, horrelakoek informazioa ezagutarazi eta helarazteko plataforma gisa balio izan dezaten ere nahi dugu.

GOMENDIO-ORRIA: Parte-hartzaileek eta gizarteak, oro har, inpaktua baloratzea

ERREKLAMAZIO-LIBURUA: kritikak edo hobetzeko alderdiak baloratzea

BIDAIAREN EGUNKARIA: Inpaktuaren eta iraunkortasunaren irakurketa

BIDAIA-KLUBA: Parte hartzen duten eragileen eta gizarte zibilaren fidelizazio eta sozializazioa

BIDAIA-FOROA: Etengabeko hobekuntza, eboluzio dinamiko eta behar berrien identifikaziorako tokia

EXPOVACACIONES: Prozesua aurkeztea eta jardunbide egoki gisa aitortzea

GOMENDIO-ORRIA

PARTE-HARTZAILEEK ETA
GIZARTEAK, ORO HAR,
INPAKTUA BALORATZEA

Planteatzen du agente adituek eta/edo bestelako agenteek eta/edo herritarrek proiektuaren ikuskaritza egitea?

Zehaztasunez erabiltzen ditu lortutako emaitzen inpaktua neurtzeko tresnak?

Pieza bakoitza zehatz-mehatz aztertzen du balioa duten elementu nagusiak, hutsegiteak eta gabeziak identifikatzeko?

Bidaia amaituta, atsegin izaten dugu oso bizitakoa beste pertsona batzuei ezagutaraztea. Bizitakoa azaltzea, ikasitakoa zein sentitutakoa helarazten saiatzea, bai eta gure abenturen erakuskeria egitea ere. Emozioen leherketa hori ez dagokio soilik bidaia zuzenean bizi duen pertsonari, beste batzuei ere eragiten baitie, bidaiatzeko eta esperientzia hori bizitzeko interes eta gogo sortzen dielako.

EBALUAZIOA OSOTARA EBALUATU BEHARRA DAGO

Bidaia garapenean zehar ebaluatu ondoren, **prozesua osotara ebaluatu beharra dago, eta politika batean zein zerbitzu batean egindako hobekuntzak eta inpaktua neurtu behar ditugu.**

Komeni da barneko ebaluazioa egitea hitzartutako neurrien ezarpenaren jarraipena bermatzeko baina, horrekin batera, kanpoko ebaluazioa ere egin behar da inpaktua ebaluatzeko eta neurrien ondorioak egiaztatu ahal izateko.

GIZARTERATZEA ETA ONARTZEA ERRAZTEN DUTEN TRESNAK

Kontsultak eta inkestak egin ohi dira **inpaktua neurtzeko**. Fase ezberdinetan **prozesua egokitu** egin dugu bidaiaren beharren edota aurkitzen genuen testuinguruaren arabera, eta oraingoan ere egokitu beharko dugu **hartzaileen errealitatea kontuan hartzeko**.

Bidaiari eta prozesuari balioa erantsiko diegu, eta onartu eta gizarteratzea erraztuko dugu, baldin eta neurketa zorrotzak egiteko zein herritarrek helarazitako ebaluazio eta balorazioak gehitzeko moduko tresnak sartzeko gauza bagara.

ERREKLAMAZIO-LIBURUA

KRITIKAK EDO HOBETZEKO
ALDERDIAK BALORATZEA

Bildu eta zabaltzen ditu barneko eta kanpoko mailan egindako ekarpen kritikoak? Material publikoetan gehitzen ditu?

Irtenbide eta erantzun zehatzak planteatzen ditu zalantzan jarritako eta/edo balorazio ona jaso ez duten elementuei dagokienez?

Eragiten al du askotariko begiraden bidez eta ahuleziak eta erronka berriak bilatuz ekintza indartzen laguntzen duen kritika eraikitzailea?

Bidaiatzen dugunean, ohitura arduratsua izaten da desoreka bat eragin diguten bidaiaren alderdi edo egoera guztien berri jasotzea. Era horretan, beste pertsona batek bidaia antolatzen duenean edo beste pertsona batena laguntzen duenean, esperientzia, ahal izanez gero, hobetuko du, eta bizipenak aurrerantzean ere eraikitzeko ikaspena izango da.

EKARPEN GUZTIAK DIRA HOBETZEKO AUKERA BAT

Ideiak eta proposamenak, batera plazaratutako iritzia, ekarpenak eta eztabaida sortzen dituzten konexioen esperientzia bada, **PARTE-HARTZEAREN herrialderako bidaia orok kritikak eta balorazio negatiboa jasotzen duten alderdiak eragin ditzake.**

Prozesuak ez ditu ekarpen horiek mehatxutzat hartu behar, **hobetzeko aukeratzat eta lortutako eragina ontzat jotzen ez duten interes-talde edo agenteengana are gehiago hurbiltzeko aukeratzat baizik.**

Bidaiaren inpaktuaren eta irispenaren gaineko irakurketa horiek kontuan hartzen eta biltzen baditugu, irtenbide eta erantzun zuzenak planteatu ahal izango ditugu, era horretan, eta ahal den neurrian betiere, talde eta interes-kolektibo kopuru handiena gogobeterik gera daitezen.

Era eraikitzaile batez egindako askotariko begiradak gidari izan behar ditugu ahuleziak eta hobetu beharreko arloak identifikatzeko ez ezik, baita erronka eta helmuga berriak zein hurbiltzeko bidaia berriak bilatzeko ere

BIDAIAREN EGUNKARIA

INPAKTUAREN ETA
IRAUNKORTASUNAREN
IRAKURKETA

Testuinguruan kokatzen eta zehazten ditu tokiko eta/edo sektoreko eta/edo lurraldeko garapenerako proiektuak zer ekarpen egiten dituen?

Antzeko ezaugarriak dituzten proiektuetan etorkizuneko jarduketak aurretiaz abalatzeko bezainbeste justifikatzen du bere balioa?

Inpaktua oro har neurtzen du gobernantza, gizarte-kohesio, kultura politikoaren artikulazio, gizarte-balioen defentsa eta abarren ereduaren arabera irizpideei jarraiki?

Bisitaturako tokiak, dastaturako jakiak zein gauditutako ezustekoak alde batera utzita bidaiak zer balio duen deskubritu behar dugu, horixe izango baita gordeko dugun bidaiaren oroitzapenik onena. Ikasitakotik, ezagututako jendearengandik zein bizitakotik gozatzen badugu, etxera itzuli ondoren ere hala egin ahal izango dugu. Horixe da bidaiatzeak dakarkigun sari handia.

IRAKURKETA POLITIKO ETA ESTRATEGIKOA EGITEKO ORDUA DA

Planifikatu, garatu eta ebaluatu ondoren bidaia **testuinguruan kokatu behar dugu modu orokor batez, prozesu parte-hartzailearen irakurketa politiko eta estrategikoa egin ahal izan dezagun.**

Tokiko eta/edo sektoreko eta/edo lurraldeko garapenari balioa ematen dioten alderdiak nabarmentzeko gauza izan behar gara. Nabarmendu behar dugu prozesuak zer balio-proposamen dakarren, beste modu batera zer egiten ari garen, aldatu eta egokitzea zer lortu dugun eta, batez ere, agertoki berri horretan zer ondorio politiko, sozial, kultural eta/edo ekonomiko egon daitezkeen: hots,

arau bihurtu den edo adostasun politikoa bilatu den baloratu behar dugu edota identifikatutako lerro horiek gauzatzeko finantzaketa-planen bat edo sustatu eta laguntzeko beste neurriren bat garatu den.

Balio hori aztertu eta prozesua arduraz balidatu behar dugu antzeko ezaugarriak dituzten etorkizuneko jarduerentzat **jarraibideak eta gomenduak finka ditzakeela** uste badugu. Etorkizuneko prozesuetarako gidari ez ezik, **prozesuaren beraren eta bertan parte hartu duten pertsonen errekonozimendu sozial eta politiko handia egiteko** ere balio izango du horrek.

GOBERNANTZA-EREDU BERRIETARAKO GARAIA DA

Gidaliburu honetan azaldu dugun moduan, **governantza-eredu berrietarako garaia da**, euskal gizarteangero eta garrantzi handiagoa hartzen ari diren kontzeptuetarako garaia (gizarte-kohesioa, gizarte-balioen defentsa, kultura politiko eta parte-hartzailea...).

Gure prozesua eta inpaktua koordinada berri horietan sartzeko gauza izan behar gara, eta prozesuak balio publikoa modu partekatuan sortzeko aro berri bat eraikitzeko prozesuan zer eginkizun duen ere nabarmendu behar dugu.



BIDAIA-KLUBA

PARTE HARTZEN DUTEN
ERAGILEEN ETA GIZARTE
ZIBILAREN FIDELIZAZIO ETA
SOZIALIZAZIOA

Zer neurri jasotzen dira proiektu parte-hartzaileen balioa eragina duten ekosistema, lurralde eta sektorean banaka eta oro har gizarteratzeko?

Nola lotu agenteak dinamika parte-hartzaile berriei? Zer konpromiso hartzen da aurrerapenen berri emateko?

Proiektua amaituta, beste ekimen batzuk jasotzen dira proiektuan parte hartzen duten agenteekin elkarreraginean aritzeko?

Eta zer esan bidaia elkarrekin egin duten pertsonak anekdota haiek, paisaia haiek... gogoratu eta berriro bizitzeko ilusioz beterik biltzen diren momentu horietaz? Horietako bakoitzak egunerokoan oraindik bizi izan dituen eta besteei helarazterik izan ez dituen sentsazioez gozatzeko espazio bat.

PARTE HARTU DUTEN PERTSONAK DIRA GURE ENBAXADORE ONENAK

Bidaian lagun izan ditugun pertsonetikiko harremana sarritan ez da behar bezala zaintzen edo, besterik gabe, ez dago horrelakorik, eta horrek, bidaiaaren sentsazio negatiboa ekarri ohi du, haren emaitza eta inpaktua gorabehera.

Prozesua eta inpaktua herritarren artean oro har gizarteratzeko gure neurriez gain, jakitun izan behar gara bidaian lagun izan ditugun pertsona horiek direla prozesuaren eta horren emaitzaren gure enbaxadore onenak.

Atsegina eta eraginkorra da plan bat egitea prozesuaren aurrerapenen berri emateko konpromisoa hartuta; plan horrek pertsonak prozesuari jarraipena eta koherentzia ematen dioten etorkizuneko ekimen berriei lotu behar ditu eta, halaber, (egoeraren arabera betiere) sare bat sortu behar du inpaktuak denboran irautean lagun dezan eta, ahal bada, lan horretan ardurak ere bere gain har ditzan.

BIDAIA-FOROA

ETENGABEKO HOBEKUNTZA
EBOLUZIO DINAMIKO
ETA BEHAR BERRIEN
IDENTIFIKAZIORAKO TOKIA

Jarduerak biltzen al ditu proiektuak parte-hartzaileak partaidetzako beste esperientzia batzuetara eta/edo antzeko prozesuetan parte hartutako pertsonekin egindakoetara hurbiltzeko?

Sustatzen al da ekarpenak biltzea proiektuaren xedea beste ekimen eta proposamen batzuekin zabaltzeko?

Zein alderditan alda daitezke planifikatutako prozesuaren elementuak parte hartzen duten agenteen eskariei kasu egiteko?

Bidaiatzearen esperientziaz gozatzen duenaren ezaugarri zinez interesgarria da berriki bidaiatu duzun herrialde horretara joandako pertsonen esperientzia elkarri jakinaraztea eta horien bizipena ezagutzeko jakin-mina izatea. Ikasten jarraitzeko modu bat da, gure bidaiaren agian oharkabea igaro diren gauzak beste begirada batetik ulertzekoa.

KULTURA PARTE-HARTZAILEA BERRITU ETA SUSTATZEA

Eta prozesu batean parte hartzen duten pertsonen inguruan **sarea sortzeko** ideari oso lotua, sare hori **PARTE-HARTZEAREN herrialdera bidaia ezberdin eta askotariko egin dituzten pertsonen osatzea** ere bada aberasgarria.

Esperientzia parte-hartzaile ezberdinetarako edozein hurbilketa gizartearen kultura parte-hartzailea

sortzen eta berritzen laguntzen du.

Toki ezin hobeak dira ekarpen berriak bil ditzagun, eta horiei esker begiradak zabaldu eta ekimen zein proposamen berriak sortu ahal izateko; halaber, gizarte zibilak zer eskatzen duen egunean edukitzen laguntzen digute.

EXPOVACACIONES

PROZESUA AURKEZTEA ETA JARDUNBIDE EGOKI GISA AITORTZEA

Nola ikustaraziko dira egindako lana eta bildutako ekarpenak? Ekitaldi publikoa? Materialak?

Parte hartu duten pertsonak edo erakundeak identifikatu eta aitortuko dira prestatzen diren materialetan

Zer protagonismo dute emaitzen aurkezpenean parte hartu duten pertsonak?

Bidaia aparta izan denean, zergatik ez azaldu? Zergatik ez utzi beste pertsona batzuek gure bidaia pentsatzen ari diren diseinu eta bidaian baliagarri zaizkien osagai eta zapoak berreskura ditzaten? Eskerrak emateko, partekatzeko garaia da, bidaian lagun izan ditugun pertsona guztiei bidaia merezi izan duela ozen eta argi esatekoa.

JARDUNBIDE EGOKIA IKUSTARAZTEAK JENDAUURREKO ERREKONOSIMENDUA DAKAR

Eta gure bidaia amaitzeko, haren jendaurreko aurkezpenarekin eta praktika eta esperientzia modura aitortzearekin lotutako guztia baloratu eta kontuan hartu behar dugu.

Aurkezpenaren bidez prozesu osoa, bildutako ekarpenak eta sortutako inpaktuak ikustarazi beharko dira, bai eta bidaian parte hartu duten pertsonak ere.

Aurkezpen horrek bidaiaren funtsa bera, parte-hartzearen zutabeak helarazi behar ditu; hortaz, ez da ulargarria parte hartu duten agenteen protagonismo eta errekonozimendurik ez egotea aurkezpen horretan.

EUSKADIKO JARDUNBIDE EGOKIAK

JARDUNBIDE EGOKIEN ERANSKINA:

http://www.gipuzkoapartehartzen.net/images/docs/eu/Buenas_Practicas_Participacion_Anexo_eu.pdf

JARDUNBIDE EGOKIEN DATU-BASEA:

http://www.gipuzkoapartehartzen.net/index.php?option=com_buenas_practicas&Itemid=31&phpMyAdmin=xEMa,hpqA-,Mklfsg5tsYBxo0b&lang=eu

FEMP. JARDUNBIDE EGOKIAK

http://www.femp.es/Portal/Front/Atencion_al_asociado/Buenas_Practicas/_y-rfpJiXKXrNNuV-hEakOq9Euvf_zJSI

E-PARTAIDETZA EB

http://eparticipation.eu/wp-content/uploads/2012/10/eCitizeni_manuaal_A4_SPANISH-1.pdf

<http://eparticipation.eu/>

OIDP ESPERIENTZIAK

<http://www.oidp.net/es/experiencias/>

HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO BESTE GIDA BATZUK:

http://www.famp.es/racs/observatorio/GLOSARIO/GUIA_participacion_ciudadana.pdf

<http://participa.alcobendas.org/public/1/docs/eda935dc67a71aa2443bc3c5ef312951.pdf>

<http://www.upv.es/contenidos/CAMUNISO/info/U0534691.pdf>

<http://www.eudel.eus/es/areas/participacion>

<http://molini.es/preguntas-mas-frecuentes/libro/>

BIDAIA ON!

GIDA DIGITALA

http://www.gardena.euskadi.eus/partehartzea_gida/



HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA. EUSKO JAURLARITZA

PROIEKTUA: Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria (2014ko abendua)

ARGITALPENA: PARTE-HARTZEA. GIDA-BIDAIA. Esplorazio, hurbilketa eta ibilbiderako orientabideak (2015eko azaroa)

LAN-TALDEA:

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza

Javier Bikandi. Zuzendaria

Koldobike Uriarte. Proiektu Arduraduna

Innobasque - Berrikuntzaren Euskal Agentzia

Gotzon Bernaola. Gizarte Berrikuntzako Programa Zuzendaria

Goizalde Atxutegi. Gizarte Berrikuntzako Proiektu Arduraduna

Kanpo-kolaboratzailea:

Danel Alberdi (Coach&Play)



PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO